


Laburpena

Giza Garapenari buruzko Txostena **2013**



Hegoaldearen Goraldia:

giza garapena, aniztasun handiko mundu batean



Euskarazko argitalpena Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren eta Getxoko Udalaren finantziaioari esker egin da

Argitaratzailea: UNESCO Etxea
Isozaki Atea - Bizikidetasun Plaza
Uribitarte Pasealekua 12, 2. lokala
48001 Bilbo
www.unescoetxea.org



Itzulpena: Olatz Oiartzabal (Bakun S.L.)
Zuzenketak: Amaia Lasheras (Bakun S.L.)
Argitalpenaren koordinazioa:
Jessica Domínguez (UNESCO Etxea)
Itxaso Astigarraga (Bakun S.L.)
Inprimaketa: Printheus S.L.
Lege-gordailua: BI-465-2013

Klorotik eratorritako produkturik gabe zurituriko %100 paper birziklatuan inprimatua.

Argitalpen honen paperaren kontsumoa, bai eta banaketak sortuko dituen berotegi-efektuko gasak ere, konpentsatu egingo dira CeroCO2 ekimenak bideratzen dituen isurketa-proiektuen bitartez. Horrenbestez, argitalpen hau "karbono neutrala" da eta klima-aldaketaren prebentzioan parte hartzen du.

Copyright © 2013
United Nations Development Programme
1 UN Plaza, New York, NY 10017, USA

Eskubide guztiak erreserbatuta. Argitalpen hau ezin da erreproduzitu, transmititu edo errekonstruzio-sistema batean gorde, edozein modutan edo edozein bitarteko elektronikoa nahiz mekanikoa erabiliz, ez eta fotokopia bidez, grabatuz edota bestelako sistemak erabiliz ere, berariazko baimenik izan gabe.

Jatorrizko bertsioa: Kanadan inprimatu da, eta Lowe-Martin Group izan da inprimatzailea. Forest Stewardship Council kontseiluak ziurtatu du klororik gabeko orriak direla. Landare-oinarriko tintekin inprimatu da, eta ingurumenarekin bateragarria den teknologiaren bidez ekoizti da.

Edizioa eta produkzioa: Communications Development Incorporated, Washington DC
Diseinua: Melanie Doherty Design, San Francisco, CA

Argitaratu ondoren aurkitutako akatsen edo hutsen zerrrenda ikusteko, sartu gure webgunean: <http://hdr.undp.org>

Giza Garapenari buruzko Txostena 2013 prestatu duen taldea

Zuzendaria eta egile nagusia

Khalid Malik

Ikerketa eta estatistikak

Maurice Kugler (ikerketa-burua), Milorad Kovacevic (estatistika-burua), Subhra Bhattacharjee, Astra Bonini, Cecilia Calderón, Alan Fuchs, Amie Gaye, Iana Konova, Arthur Minsat, Shivani Nayyar, José Pineda eta Swarnim Waglé

Komunikazioak eta argitalpena


William Orme (komunikazio-burua), Botagoz Abdreyeva, Carlotta Aiello, Eleonore Fournier-Tombs, Jean-Yves Hamel, Scott Lewis eta Samantha Wauchope

Giza garapenari buruzko herrialdeko txostenak

Eva Jespersen (zuzendariordea), Christina Hackmann, Jonathan Hall, Mary Ann Mwangi eta Paola Pagliani

Eragiketarak eta administrazioa

Sarantuya Mend (eragiketa-administratzailea), Ekaterina Berman, Diane Bouopda, Mamaye Gebretsadik eta Fe Juarez-Shanahan



Laburpena

Giza Garapenari buruzko Txostena 2013

Hegoaldearen goraldia:

giza garapena, aniztasun handiko mundu batean



Nazio Batuetako
Garapen
Programarentzat
(UNDP)
argitaratua

*Bizitza ahaldunduak.
Nazio indartsuak.*

Hitzaurrea

Giza Garapenari buruzko Txostena 2013 —Hegoaldearen goraldia: giza garapena, aniztasun handiko mundu batean— izeneko txosten honek gaur egungo geopolitika lantzen du; izan ere, sortzen ari diren arazoak eta joerak aztertzen ditu, eta garapena aldatzen ari diren eragile berriak aurkeztzen ditu.

Garapen-bidean dauden hainbat herrialde ekonomia nagusi bihurtzen ari dira, abiada bizian, eta gero eta eragin handiagoa dute politikan. Txostenak adierazten duenez, horrek zuzenean eragiten dio giza garapenari.

Giza Garapenaren Indizearen (GGI) neurketei erreparatzen badiugu, azkeneko hamarkadan, herrialde guztiek areagotu dituzte hezkuntzan, osasunean eta diru-sarreretan egindako lorpenak —datuak eskuragarri dituzten herrialdeetatik, batek ere ez du 2000koa baino GGI-balio baxuagoa lortu 2012an—. Denbora-tarte horretan aurrerapenik handiena GGI apala zuten herrialdeek egin dutenez, GGI-balioak parekatuz joan dira mundu osoan, nahiz eta aurrerapen hori ez den orekatua izan eskualdeen barruan eta eskualdeen artean.

1990etik 2012ra bitartean diru-sarreretan nahiz diru-sarrerekin lotuta ez dauden giza garapenaren alderdietan GGI-balioa nabarmen handitu duten herrialdeei dagokienez, Txostenak aztertzen du zer estrategia erabili dituzten herrialde horiek emaitza onak lortzeko. Alde horretatik, 2013ko Txostenak ekarpen handia egin dio garapenaren ikuspegiari; izan ere, garapena aldatzen ari diren eragile espezifikoak deskribatu ditu, eta etorkizunean ere une honetako bultzadari eusten lagunduko duten politika-lehentasunak proposatu ditu.

Txosten honetarako egindako aurreikuspenen arabera, 2020rako, garapen-bidean dauden hiru herrialde nagusien —Brasil, Txina eta India— ekoizpen ekonomikoen baturak gaintitu egingo du Kanadaren, Frantziaren, Alemaniaren, Italiaren, Erresuma Batuen eta Estatu Batuen ekoizpen agregatua. Bestalde, Txostenak adierazten du Hegoaldeko herrialdeen artean merkataritzaren eta teknologiaren alorrean sortutako lankidetzak berriak direla hazkunde horren zati handi baten bultzatzaileak.

Nolanahi ere, Giza Garapenari buruzko Txosten honetan eta aurrekoetan adierazitako mezuz nagusietako bat da hazkunde ekonomikoak soilik ez duela zuzenean giza garapena hobetzea eragiten. Beharrezkoa da pobreak kontuan hartzen dituzten politikak egitea eta pertsonen gaitasunetan inbertsio handiak egitea —hezkuntza, elikadura eta osasuna, eta lanerako trebetasunak hartuta helburutzat—, lanpostu duinak eskuratzeko aukerak areagotzeko eta garapen iraunkorra lortzeko.

2013ko Txostenak lau arlo espezifiko identifikatu ditu, garapenaren bultzada horri eusteko: ekitatea areagotzea, generoaren ikuspegia kontuan hartuta; hitz egiteko eta parte hartzeko aukera handiagoa ematea herritarrei, baita gazteei ere; ingurumenaren alorreko presioei aurre egitea; eta aldaketa demografikoa kudeatzea.

Bestalde, Txostenak adierazten du, garapenarekin lotutako erronka globalak gero eta konplexuagoak direnez eta mugak gaintuzten dituztenez, beharrezkoa dela modu koordinatuan jardutea gure garaiko erronkarik larrienetan, hala nola pobreziaren kontrako borrokan, klima-aldaketan, eta bakean eta segurtasunean. Merkataritza, migrazioak eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak direla eta, herrialdeek gero eta lotura handiagoa dute elkarren artean; beraz, ez da harritzekoa toki batean hartutako erabaki politikoek eragin handia izatea gainerako tokietan ere. Horixe adierazten digute azken urteetan horrenbeste jenderen bizitza hondatu duten krisiek —janariaren, finantzaren nahiz klimaren alorrekoek—, eta adierazten digute, halaber, garrantzitsua dela jendeak ezusteko gertaerekin eta hondamendiekin horrenbeste kalte ez jasateko lan egitea.

Txostenaren arabera, beharrezkoa da eskualdeen integrazioa eta Hegoa-Hegoa lankidetzak errazten duten erakunde berriak izatea, Hegoaldean jakintzaren, esperientziaren eta garapen-ikuspegiaren aberastasuna aprobetxatzeko. Garapen-bidean dauden herrialdeetan suspertzen ari diren botereak gizarte- eta ekonomia-politika berritzaileen iturri dira da-goeneko, eta garapen-bidean dauden beste herrialde batzuekin jarduten dute merkataritzaren

eta inbertsioen alorrean, eta, gero eta gehiago, garapenerako lankidetzaren alorrean.

Hegoaldeko beste herrialde askok ere garapen azkarra izan dute, eta haien esperientziak eta Hegoa-Hegoa lankidetzaren ere inspirazio-iturri dira garapen-politikak egiteko. Nazio Batuetako Garapen Programa lagungarria izan daiteke, alde batetik, jakintza-artekari gisa, eta, bestetik, kideak elkartu —gobernuak, herritarrek eta enpresa multinazionalak— eta esperientziak trukatzeko gune gisa. Ikasten eta gaitasunak eraikitzen laguntzeko ere balio dezake. Txostenak oso ideia erabilgarriak ematen ditu, etorkizunean guk ere Hegoa-Hegoa lankidetzarako konpromisoak hartzeko.

Azkenik, Txostenak adierazten du beharrezkoa dela munduko gobernantza-erakundeekiko ikuspegi kritikoa izatea, mundu justuagoa eta zuzenagoa lortzeko. Azaltzen du egiturak zaharkituta daudela, eta ez dutela adierazten egungo errealitate ekonomiko eta geopolitiko berria. Horregatik, lankidetzaren aro berri baterako zenbait aukera aipatzen ditu. Gainera, adierazten du beharrezkoa dela gardentasun eta erantzukizun handiagoa lortzea,

eta azpimarratzen du munduko gizarte zibilak hori eskatu behar duela, eta eskatu behar duela, halaber, munduko erronken eragina zuzenean bizi dutenek erabakiak hartzeko botere handiagoa izan behar dutela —askotan munduko pertsonarik pobreenak eta kalteberenak izaten dira—.

Munduko garapenaren agendan eztabaidak 2015etik aurrera ere jarraitzen duenez, espero dut jende askok Txosten hau irakurtzeko astia hartu, eta oso bizkor aldatzen ari den mundu honen gainean ematen dituen irakaspenei buruz hausnartuko duela. Txostenak munduko garapenaren egungo egoerari buruz dugun ideia eguneratzen du, eta erakusten du zenbat ikas dezakegun Hegoaldeko hainbat herrialderen garapen azkarraren esperientzietatik.



Helen Clark

Administraria

Nazio Batuetako Garapen Programa

Giza Garapenari buruzko Txostena 2013ren edukiak

Hitzaurrea

Eskerrak

Ikuspegi orokorra

Sarrera

1. KAPITULUA

Giza garapenaren egoera

Herrialdeen garapena

Gizarteratzea

Pertsonen segurtasuna

2. KAPITULUA

Hegoalde globalagoa

Berrorekatea: mundu globalagoa, Hegoalde globalagoa

Giza garapenaren bultzada

Berrikuntza eta ekintzaitza Hegoaldean

Lankidetzaren modu berriak

Garapenari eustea, zalantza betetako garaioan

3. KAPITULUA

Garapenaren alaketaren eragileak

1. eragilea: garapen-estatu proaktiboa

2. eragilea: pixkanaka munduko merkatuetan sartzea

3. eragilea: gizarte-politiken berrikuntza irmoa

4. KAPITULUA

Bultzadari eustea

Garapen-bidean dauden herrialdeen lehentasun politikoak

Demografia eta hezkuntza modelatzen

Biztanleriaren zahartze-tasaren eragina

Asmo handiko politiken beharra

Unea aprobeztatzea

5. KAPITULUA

Aro berri baterako gobernantza eta lankidetzaren

Ondasun publikoen ikuspegi global berri bat

Hegoaldearen ordezkartza handiagoa

Munduko gizarte zibila

Aniztasun koherenterantz

Subiranotasun arduratsua

Erakunde berriak, mekanismo berriak

Ondorioak: aro berri baterako kideak

Oharra

Bibliografia

ESTATISTIKA-ERANSKINAK

Irakurlearen gida

Herrialdeen eta GGIren arabera sailkapenaren gida, 2012

Estatistika-etaulak

- 1 Giza Garapenaren Indizea eta zer osagai dituen
- 2 Giza Garapenaren Indizearen joerak, 1980–2012
- 3 Berdintasun-eraren arabera Doituko Giza Garapenaren Indizea
- 4 Generoaren alorreko Berdintasun-eraren Indizea
- 5 Alderdi Anitzeko Pobreziaren Indizea
- 6 Baliabideen gaineko agintea
- 7 Osasuna
- 8 Hezkuntza
- 9 Gizarteratzea
- 10 Ondasunen eta zerbitzuen nazioarteko merkataritza-fluxuak
- 11 Nazioarteko kapital-fluxuak eta migrazioa
- 12 Berrikuntza eta teknologia
- 13 Ingurumena
- 14 Biztanleria-joerak

Eskualdeak

Estatistika-erreferentziak

Eranskin teknikoak: aurreikuspenei buruzko ohar argigarria



Laburpena

2008-2009ko krisi finantzarioan ekonomia garatuek hazteari utzi ziotenean eta garapen-bidean dauden ekonomiek hazten jarraitu zutenean, mundua ohartu egin zen. Ordur geroztik, asko hitz egin da Hegoaldearen goraldiari buruz —aspalditik espero zuten munduaren berrorkatzetzat jo dute garapen-bidean dauden herrialdeek—. Eztabaida hori herrialde handi gutxi batzuetako BPGren eta merkataritzaren hazkundera mugatu izan da, baina badira beste dinamika batzuk ere, herrialde gehiago eta joera sakonagoak barnean hartzen dituztenak, eta eragin handia izan dezaketenak jendearen bizitzetan, gizarte-ekitatean eta gobernantza demokratikoan, tokian bertan nahiz mundu osoan. Giza garapenean etengabe egindako inbertsioen eta lorpenen emaitza da Hegoaldearen goraldia, baina baita mundu osoan giza garapen handiagoa lortzeko aukera bat ere. Garapen hori errealitate bihurtzeko, beharrezkoa izango da ongi informatutako politika argiak egitea munduan nahiz herrialdeetan, Txosten honetan aztertutako politika-irakaspenetan oinarrituta.

Hegoaldearen goraldia

Hegoaldearen goraldiak sekula ikusi gabeko abiadura eta dimentsioak hartu ditu. Giza garapenaren ikuspuntu zabal batetik, ulertu behar dugu munduko biztanle gehienek jatorri diren herrialdeetan pertsonen gaitasunak izugarri areagotzearen eta giza garapenean modu iraunkorrean aurrera egitearen istorioa dela. Dozenaka herrialdek eta milaka milioi pertsonak garapenean aurrera eginez gero, gaur egun egiten ari diren moduan, aberastasuna sortzen da eta giza garapena hobetzen da munduko herrialde eta eskualde guztietan. Garapen apala izan duten herrialdeek besteen mailan jartzeko aukera berriak dituzte, eta aukera berriak daude, halaber, ekonomiarik garatueneren onerako ere izan daitezkeen politika-ekimen berritzaileak egiteko.


Nahiz eta garapen-bidean dauden herrialde gehienek emaitza onak lortu dituzten, herrialde horietako askoren emaitzak bereziki onak izan dira —“Hegoaldearen goraldia” deritzo horri—. Herrialde handienetako batzuek oso garapen azkarrak izan dituzte; adibidez, Brasilek, Txinak, Indiak, Indonesiak, Mexikok, Hegoafrikak eta Turkiak. Baina ekonomia txikiek ere egin dituzte aurrerapen handiak; adibidez, Bangladeshek, Txilek, Ghanak, Mauriziok, Ruandak eta Tunisiak (1. irudia).

Nagusiki Hegoaldearen goraldia eta horrek giza garapenean dituen ondorioak aztertzen baditu ere, *Giza Garapenari buruzko Txostena* 2013k mundu honetako aldaketak ere lantzen ditu; neurri handi batean, Hegoaldearen goraldiak eragin dituen aldaketak. Egin diren aurrerapenak, sortzen ari diren erronkak (batzuk arrakasta horren ondorioz sortuak) eta munduko nahiz eskualdeko gobernantza ordezkatzeko sortzen ari diren aukerak aztertzen ditu.

Lehenengo aldiz 150 urtean, garapen-bidean dauden hiru herrialde nagusietako —Brasil, Txina eta India— ekoizpenen batura Iparraldeko aspaldiko botere industrialen —Kanada, Frantzia, Alemania, Italia, Erresuma Batua eta Estatu Batuak— BPGren batura berdintzeko

1. IRUDIA

Aurretik zituzten GGI-balioetan oinarrituta aurreikus zitekeena baino askoz GGI-hazkunde handiagoa izan dute, 1990etik, Hegoaldeko 40 herrialdek baino gehiagok



Oharra: 45 graduko marraren gainetik dauden herrialdeek 1990ean baino GGI-balio handiagoa lortu dute 2012an. Urdinez eta grisez adierazitako herrialdeek 1990eko GGI-balioarekin aurreikusitakoa baino askoz GGI-hazkunde handiagoa izan dute 1990etik 2012ra bitartean. Herrialde horiek identifikatzeko, GGIk 1990etik 2012ra bitartean izan duen aldeak 1990eko datuen gainean duen erregresioaren hondarrak erabili dira. Markatutako herrialdeak GGI-balioetan aurrerapen azkarrak egin dituzten herrialde batzuk dira; Txosten osoko 3. kapituluaren lantzen dira. Iturria: Giza Garapenari buruzko Txostenaren Bulegoaren (HDRO) kalkuluak.

Hegoaldea, Iparraldearen moduan, berrikuntza teknikoaren eta ekintzaileen jatorri bultzatzen ari da

zorian dago. Horrek esan nahi du munduko botere ekonomikoa izugarri berronkatzen ari dela: 1950ean, Brasilen, Txinaren eta Indiaren ekoizpenen batura munduko ekonomiaren %10 soilik zen; Iparraldeko sei lider ekonomikoen tradizionaleen batura, berriz, %50 baino gehiago. Txosteneko aurreikuspenen arabera, 2050erako, Brasilen, Txinaren eta Indiaren ekoizpenen batura munduko ekoizpenaren %40a iritsiko da (2. irudia), eta alde handiz gaitutuko du egungo G7ren ekoizpen bateratua.

Hegoaldeko erdi-mailako klasea azkar hazten ari da tamainaren, diru-sarreraren eta itxaropenen aldetik (3. irudia). Hegoaldean jende pila bat bizi denez —milaka milioi kontsumitzaile eta herritar—, Hegoaldeko gobernuen, enpresen eta nazioarteko erakundearen ekintzek eragin izugarria dute munduko giza garapenean. Hegoaldea, Iparraldearen moduan, berrikuntza teknikoaren eta ekintzaileen jatorri bultzatzen ari da. Iparraldea-Hegoa merkataritzan, duela gutxi industrializatu diren ekonomiek zenbait gaitasun eratu dituzte, produktu konplexuak


fabrikatzeko, modu eraginkorrean, herrialde garatuetarako. Hegoa-Hegoa harremanek, berriz, tokiko beharretarako egokiak diren produktuak eta prozesuak egokitzeko eta berritzeko aukera eman diete Hegoaldeko enpresei.

Giza garapenaren egoera

2012ko Giza Garapenaren Indizeak (GGI) aurrerapen handiak egin direla adierazi du. Azkeneko hamarkadetan, munduko herrialdeek giza garapenaren maila hobetzea lortu dute. Giza garapen apala eta ertaina duten herrialdeek handitu dute azkarren GGI-maila. Albiste ona da hori. Nolanahi ere, garapena GGI-maila hobetzea baino gehiago da. Ez litzateke ez desiragarria ez iraunkorra GGI handitzearekin batera diru-sarreretako berdintasun-ezak, iraunkorrak ez diren kontsumo-ereduak, gastu militarrek eta gizarte-kohesio baxua areagotzea (1. laukia).

2. IRUDIA

Aurreikuspenen arabera, Brasilen, Txinaren eta Indiaren ekoizpenen batura mundu osoko ekoizpenaren %40 izango da 2050erako; hau da, 1950eko tasa (%10) baino handiagoa



Oharra: ekoizpena neurtzeko, 1990eko erosteko ahalmenaren parekotasuna erabili da, dolarretan.

Iturria: HDROK kalkulatuak, Maddison-en datu historikoak (2010) eta Pardee Center for International Futures-en oinarritutako aurreikuspenak (2013) tartekatuta.

Giza garapenaren zati garrantzitsu bat ekitea da. Pertsona guztiek dute beren balioen eta nahien arabera bizitza gogobetegarria izateko eskubidea. Inork ez luke bizitza laburra edo miserablea izan behar, “okerreko” klaseko edo herrialdekoa, “okerreko” talde etnikoko edo arrazakoa edo “okerreko” sexukoa izateagatik. Berdintasun-erak moteldu egiten du giza garapenaren erritmoa; are gehiago, guztiz eragozten du, kasu batzuetan. Oro har, azkeneko bi hamarkadetan, askoz gehiago murriztu dira osasunaren eta hezkuntzaren alorreko berdintasun-erak, diru-sarreraren alorrekoak baino (4. irudia). Azterketa gehien-gehien arabera, munduan berdintasun-er handiak daude diru-sarreraren alorrean, baina ez da adostu zein izan diren azkenaldiko joerak.


Hegoalde globalagoa

Munduko ekoizpena berronkatzen ari da, azken 150 urteetan gertatu ez bezala. Nabarmen handitu dira ondasunen, zerbitzuen, jendearen eta ideien mugaz haraindiko mugimenduak. 2011rako, munduko ekoizpenaren %60 inguru zen merkataritza. Garapen-bidean dauden herrialdeek zerikusi handia izan dute horretan (2. laukia); izan ere, 1980tik 2010era bitartean, asko handitu dute munduko salgai-merkataritzan duten proportzioa (%25etik %47ra), bai eta munduko ekoizpenean dutena ere (%33tik %45era). Gainera, garapen-bidean dauden eskualdeek harreman estuagoak dituzte orain: 1980tik 2011ra bitartean, Hegoa-Hegoa merkataritza munduko salgai-merkataritzaren %8,1 izatetik %26,7 izatera igaro da (5. irudia).

Nolanahi ere, ez dira garapen-bidean dauden herrialde guztiak parte hartzen ari Hegoaldearen goraldean. Aldaketa motelagoa izaten ari da, adibidez, garapen apalena duten 49 herrialdeetako gehienetan; batez ere, itsasotik edo munduko merkatuetatik urrun daudenak. Dena den, herrialde horietako asko hasi dira Hegoa-Hegoa merkataritzari, inbertsioari, finantzari eta teknologia-transferentziari etekina ateratzen. Txinak, adibidez, eragin positiboa izan du garapen-bidean dauden beste herrialde batzuen hazkundera; batez ere, gertuko merkataritza-kideenak. Onura horiek orekatu egin dute, neurri batean, herrialde garatuen eskaerak behera egin izana. Kalkuluen

3. IRUDIA

Aurreikuspenen arabera, Hegoaldeko erdi-mailako klaseak hazten jarraituko du



arabera, diru-sarrera apalak dituzten herrialdeen hazkundera %0,3–1,1 baxuagoa litzateke 2007–2010 aldirian, Txinako eta Indiako hazkundera ere ekonomia garatuetakoa bezainbeste murriztu izan balitz.

Herrialde askok eragin positibo horiek jaso dituzte giza garapenerako lagungarriak diren sektoreetan ere; bereziki, osasunean. Indiako enpresek, adibidez, arrazoizko prezioan saltzen dizkiete sendagaiak, medikuntza-ekipoak eta IKTekin lotutako produktuak eta zerbitzuak Afrikako herrialdeei. Brasilgo eta Hegoafrikako enpresak gauza bera egiten ari dira, beren eskualdeko merkatuetan.

Dena den, herrialde handiagoetatik esportatzeak desabantailak ere izan ditzake. Herrialde handiek lehia-presioak sortzen dituzte herrialde txikietan, eta presio horiek ekonomiaren dibertsifikazioa eta industrializazioa ito ditzakete. Baina badira lehiaren eraginez industria suspertzea lortu duten adibide batzuk ere. Gerta daiteke gaur egun lehian egon eta etorkizunean besteen osagarri bihurtzea. Erronka berriei aurre egiteko politiken esku dago lehiatik lankidetzara igarotzea.

Ez dira garapen-bidean dauden herrialde guztiak parte hartzen ari Hegoaldearen goraldean

Nolakoa da gizaki izatea?

Duela mende erdi inguru, Thomas Nagel filosofoak "What Is It Like to Be a Bat?" (Nolakoa da saguzar izatea?) izeneko artikulua ezaguna argitaratu zuen. Hona hemen nire galdera: nolakoa da gizaki izatea? Egia esan, Tom Nagelek *The Philosophical Review* aldizkarian idatzitako artikulua ere gizakiei buruzkoa zen, eta oso gutxi hitz egiten zuen saguzarrez. Besteak beste, Nagelek adierazi zuen oso eszeptikoa zela behaketa bidezko zientzialariek kanpotik ikusita erraz hautematen diren garuneko eta gorputzeko beste toki batzuetako fenomeno fisikoaren bidez saguzar izatea —edo gizaki izatea— nolakoa den identifikatu nahi izateari buruz. Saguzar edo gizaki izatearen sentsazioa ezin da garuneko edo gorputzeko tik jakin batzuetara mugatu. Sentsazioa konplexua da, eta ezin da argitu tiken bidez, haiek hautematea errazagoa delako soilik (nahiz eta tentagarria izan daitekeen hala egitea).

Giza garapenaren ikuspegiaren berriena ere bereizketa batean oinarritzen da —baina Nagelen oinarritzeko alderaketa epistemologikoaren oso bestelakoa da—. Mahbub ul Haq-ek 1990ean abian jarritako giza garapenari buruzko txostenen bidez adierazi duen ikuspegi aitzindaria honako hau da: oso zaila dela pertsonen bizitzaren aberastasuna neurtzea, barnean hartuta gizakiek estimatzen dituzten askatasunak, eta askoz errazagoa dela pertsonen —edo herrialdeen— diru-sarrerak edo beste kanpo-baliabide batzuk neurtzea. Barne-produktu gordina (BPG) pertsonen bizi-kalitatea baino askoz errazago ikusten eta neurtzen da. Baina gizakien ongizatea eta askatasuna eta horrek munduko zulentasunean eta justizian duen eragina ezin da BPG eta haren hazkunde-tasa neurtzera mugatu, nahiz eta pertsona askok horretarako tentazioa izan.

Garrantzitsua da aintzat hartzea giza garapenaren barneko konplexutasuna, eta ez gure desbideratu eta galdera aldatu behar. Horixe adierazi nahi izan zuen, nagusiki, Mahbub ul Haq-ek, BPG osatzeko —eta, neurri batean, ordezkatzeko— ekimen deigarri horren bidez. Baina, horrekin batera, are kontu konplexuago bat sortu zen, —"giza garapenaren ikuspegi" delakoaren zati garrantzitsu bat hori ere—. Gerta dakiguke, praktikotasuna dela eta, giza garapenaren zenbait adierazle sinple erabiltzea, hala nola GGI, neurtzeko arau erraz batzuk dituzten hiru aldagaitan soilik oinarritua —baina bilaketa ezin da hor amaitu—. Ez genituzke baztertu behar lasterbide bideragarri eta erabilgarriak —GGI, BPG baino askoz hobeto eman diezaguke pertsonen bizi-kalitatearen berri—, baina ez gure erabat pozik gelditu behar lasterbide horietan berehala lortutako informazioarekin, etengabe aldatzen ari den mundu batean. Bizi-kalitatea neurtzea zenbaki soil batek adieraz dezakeena baino askoz konplexuagoa da, aukeraturako aldagaiak eta neurtzeko hautatutako prozedura daudenik eta zentzuzkoenak izanda ere.

Konplexutasun hori onartzeak baditu beste ondorio garrantzitsu batzuk ere. Izan ere, konplexutasun hori onartzeak ekarri du, neurri batean, jendearen iritziei garrantzia ematea, eta giza garapenari buruzko txosten horiek bereziki azpimarratzen du alderdi hori. Oinetakoa jantzita duenak soilik jakin dezake non duen estu oinetakoa, baina estu edukitze hori konpontzen duten akordio eraginkorrak egiteko, beharrezkoa da jendeari hitz egiteko eta eztabaidatzeko aukerak ematea. Jendearen ongizatea eta askatasuna ebaluatzen duten elementuen garrantzia behar bezala aztertze eta neurtze, elkarriketa etengabe bat sortu behar da jendearen artean, eta elkarriketa horrek eragina izan behar du politika publikoen eraketan. "Udaberri arabiarra" delakoaren eta munduko gainerako jende-mugimenduen garrantzi politikoa lotuta dago, hain zuzen, jendeak, besteekin hitz eginez, beren bizitza kaltetzen duenari buruz eta ezabatu nahi dituzten bidegabekeriei buruz pentsatzen duena adieraztearekin. Asko dago eztabaidatzeko —elkarren artean eta politikak egiten dituzten funtzionarioekin—.

Gobernantza-lerroek elkarriketa horretan dituzten ardurak behar bezala betetzeko, kontuan hartu behar dituzte beren kezka adierazteko hemen ez dauden pertsonen interesak. Giza garapenak ezin ditu alde batera utzi etorkizuneko belaunaldien interesak, —oraindik— hemen ez daudelako soilik. Baina gizakiek badute besteengan eta besteen bizitzengan pentsatzeko gaitasuna, eta politika arduratsu eta erantzuleak gai izan behar du elkarriketak zabaltzeko, eta, norberaren kezketara mugatu beharrean, gizarte osoak etorkizuneko eta egungo pertsonen beharren eta askatasunen garrantziaz duen ikuspegia barnean hartzeko. Kontua ez da kezka horiek guztiak adierazle bakar batean uztartzea —adibidez, are gehiago betetzea dagoeneko nahiko zamatuta dagoen GGI (dena den, egungo ongizatea eta askatasuna soilik adieraziko lituzke)—, baizik eta ziurtatzea giza garapenari buruzko eztabaidak barnean hartzen dituela kezka horiek. Giza garapenari buruzko txostenek ikuspegia zabaltzen lagunduko dute, azalpenen bidez nahiz informazio garrantzitsua duten taulak aurkeztuz.

Giza garapenaren ikuspegia aurrerapen garrantzitsua da, zaila bada ere, pertsonen bizitzaren arrakastak eta gabeziak ulertzeko, bai eta hausnarketaren eta elkarriketaren garrantziaz jabetzeko ere. Munduan zulentasuna eta justizia lortzen lagunduko du horrek. Litekeena da gu ere, saguzarren antzera, ez izatea oso neurterrazak gutaz gehiago jakiteko irrikaz dauden behaketa bidezko zientzialarien erregelentzat, baina gai gara gure bizitzaren eta bestearen —egungoak eta etorkizunekoak— alderdi ugarietara pentsatzeko eta hitz egiteko —saguzarrek ez bezala—. Gizaki izatea da saguzar baten modukoa izatea, eta, era berean, guztiz desberdina izatea.

Garapenaren aldaketaren eragileak


Herrialde askok garapen handia izan dute azken bi hamarkadetan: Hegoaldearen goraldiak herrialde asko hartzen ditu barnean. Nolanahi ere, garapen handia izan dutenetako askok, errenta nazionala handitzeaz gain, batez bestekoa baino gehiago hobetu dituzte zenbait

gizarte-adierazle; adibidez, osasuna eta hezkuntza (6. irudia).

Nolatan lortu dute Hegoaldeko horrenbeste herrialdek giza garapenerako aurreikuspenak aldatzea? Herrialde gehienetan, hiru eragile nagusi egon dira: garapen-estatu proaktiboa, pixkanaka munduko merkatuetan sartzea, eta gizarte-politiken berrikuntza irmoa. Eragile horiek ez dira atera garapenak nola funtzionatu behar lukeen dioten ikuskera abstraktuetatik;

4. IRUDIA

Eskualde gehienek murriztu egin dute berdintasun-eza osasunean eta hezkuntzan, eta areagotu, diru-sarreretan



Oharra: biztanleriaren arabera orekatutako 182 herrialdeko talde bat erabili da osasunaren alorreko berdintasun-ezagatik galarako; 144 herrialdekoa, hezkuntzaren alorreko berdintasun-ezagatik galarako; eta 66 herrialdekoa, diru-sarreraren alorreko berdintasun-ezagatik galarako. Diru-sarreraren alorreko berdintasun-ezari buruzko datuak eskuragarri daude Milanović-en (2010), 2005etik.

Iturria: HDROk kalkulatuak. Osasunaren datuak NBERen Ekonomia eta Gizarte Gaietako Departamentuaren heriotza-tasen tauletatik hartu dira; hezkuntzarenak, Barro and Lee-tik (2010); eta diru-sarrerarenak, Milanović-etik (2010).

aitzitik, Hegoaldeko herrialde askoren garapen-esperientzien bidez frogatu dira. Egia esan, zalantzan jartzen dituzte alde aurretik pentsatutako arautze-ikuspegi batzuk: alde batetik, baztertu egiten dituzte zentraliki kudeatutako zenbait agindu kolektibista; eta, bestetik, ez datoz bat Washingtongo Akordioak babesten duen mugarik gabeko liberalizazioarekin.

1. eragilea: garapen-estatu proaktiboa

Estatu indartsu, proaktibo eta arduratsu batek sektore publikorako nahiz pribaturako egiten ditu politikak —oinarritzat hartuta epe luzeko ikuspegia eta buruzagitza, arau eta balio komunak, eta konfiantza eta kohesioa eraikitzen duten arauak eta erakundeak—. Aldaketa iraunkorrak lortzeko, beharrezkoa

da herrialdeek garapenari buruzko ikuspegi sendoa eta orekatua hartzea. Dena den, errentaren eta giza garapenaren aldetik hazkunde iraunkorra abian jartzea lortu duten herrialdeek ez dute bide bakarria erabili. Zenbait modu erabili dituzte sortutako erronkei aurre egiteko: merkatua arautzea, esportazioak sustatzea, industria garatzea edota teknologiaren alorreko egokitzapena eta aurrerapena. Beharrezkoa da lehentasunak jendearengan oinarrituta egotea; hau da, aukerak sustatzea eta jendea arriskuetatik babestea. Gobernuak babesa eman diezaiekete bestela merkatu osatugabeen ondorioz sortuko ez liratekeen industriei. Nahiz eta horrek zenbait arrisku politiko dituen, hala nola errenta-bilaketa eta faboritismoa, Hegoaldeko herrialde askori aukera eman die aurrez eraginkortzat jotzen

Hegoaldea munduko ekonomian eta giza garapenean integratzea

Garapen-bidean dauden 107 herrialderen 1990–2010 urteetako lagin bat aztertu da, eta esan daiteke %87 inguru munduan integratuta dagoela; izan ere, beren merkataritza/ekoizpena koefiziente handitu dute, merkataritza-kide handi ugari dituzte¹ eta merkataritza/ekoizpena koefiziente handia dute, antzeko diru-sarrerara mailak dituzten herrialdeen aldean². Gainera, garapen-bidean dauden herrialde horiek askoz harreman handiagoa dute munduarekin eta elkarren artean: Interneten erabilerak izugarri egin du gora —erabiltzaile-kopurua %30 baino gehiago hazi da batez beste urteko, 2000tik 2010era bitartean—.

Nahiz eta ez dituzten garapen-bidean dauden herrialdeen artean munduan integratuta dauden guztiek egin aurrerapen azkarrak GGI-balioan, alderantziz bai gertatu da. Garapen-bidean dauden herrialdeen artean 1990etik 2012ra bitartean kideen aldean GGI-balioa gehien hobetu dutenak (gutxienez 45 herrialde gure laginean) integratu dira gehien munduko ekonomian azkeneko bi hamarkadetan; merkataritza/ekoizpena koefizientearen batez beste izan duten igoera garapen-bidean dauden herrialdeen artean GGI-balioan igoera apalagoa izan dutenen taldearekin baino %13 inguru handiagoa da. Hori bat dator herrialdeak garatu ahal da gehiago irekitzen direla dioten aurretiko aurkikuntza batzuekin³.


Munduan gero eta integratuago dauden eta GGI-balioa asko hobetu duten herrialdeek barnean hartzen dituzte, titularretan agertzen diren herrialde handiez gain, garapen apala duten dozenaka herrialde txiki ere. Beraz, taldea

handia eta askotarikoa da, nahiz eta askotan suspertzen ari diren ekonomia batzuetara mugatzen diren akronimoak erabiltzen diren, hala nola BRICS (Brasil, Errusia, India, Txina eta Hegoafrika), IBSA (India, Brasil eta Hegoafrika), CIVETS (Kolonbia, Indonesia, Vietnam, Egipto, Turkia eta Hegoafrika) eta MIST (Mexiko, Indonesia, Hego Korea [Koreako Errepublika] eta Turkia).

Beheko irudiak GGI-balioaren hobekuntza⁴ eta merkataritza/ekoizpena koefizientearen aldea adierazten ditu —munduko merkatuetan zenbateraino parte hartzen den azaltzen du azken adierazle horrek—. Garapen-bidean dauden herrialde horien lau bostenek baino gehiagok merkataritza/ekoizpena koefiziente handitu dute 1990etik 2012ra bitartean. GGI-balioan ere hobekuntza handia egin dutenen azpitaldeko salbuespenen artean, Indonesia, Pakistan eta Venezuela daude; hiru herrialde handi horiek munduko merkatuetako partaide globalizat hartzen dira, gutxienez ere 80 ekonomiatatik esportatzen edo inportatzen dutelako. Merkataritza/ekoizpena koefiziente murriztu duten bi herrialde txiki (Maurizio eta Panama) horrelako diru-sarreraren mailak dituzten herrialdeetarako espero zitezkeenak baino askoz maila handiagoak dituzte merkataritzan. 1990etik 2012ra bitartean GGI-balioa nabarmen hobetu duten eta merkataritza/ekoizpena koefiziente handitu duten herrialdeak irudiaren eskuineko goiko koadrantean daude. Eskuineko beheko koadrantean dauden herrialdeek (adibidez, Kenya, Filipinak eta Hegoafrika) merkataritza/ekoizpena koefiziente handitu dute, baina hobekuntza apala egin dute GGI-balioan.

Giza garapenaren eta merkataritzaren hedapena Hegoaldean

GGI-balioaren hobekuntza erlatiboa, 1990–2012



1. 2010etik 2011ra bitartean 2 milioi \$ baino gehiagoko alde biko merkataritza.

2. Oinarritzat hartu da herrialde bakoitzean merkataritza/BPG koefizienteak per capita errentaren gainean duen erregresioa, kontuan hartuta biztanleria eta itsasotik urrun egotea.

3. Ikusi Rodrik (2001).

4. GGI-balioaren hobekuntza erlatiboa neurtzeko, GGI 1990etik 2012ra bitartean izandako aldaketak GGIn 1990eko hasierako balioaren gainean duen erregresioaren hondarrak erabili dira. Ezkerreko goiko koadrantean puntu beltzak dituzten bost herrialdeek hobekuntza handia egin dute GGI-balioan 1990etik 2010era bitartean, baina murriztu egin dute merkataritza/ekoizpena koefiziente; hala ere, merkataritza-harreman sendo askori eutsi diete edo maila eta per capita errenta horretako herrialdeetarako aurreikusitakoa baino salerosketa gehiago egin dituzte. Eskuineko goiko eta beheko koadranteetan puntu zuriekin adierazita dauden herrialdeek GGI-balioaren hobekuntza erlatibo apala izan dute 1990etik 2012ra bitartean, baina handitu egin dute merkataritza/ekoizpena koefiziente edo merkataritza-harreman sendo askori eutsi diete.

Iturria: HDROK kalkulatu. Merkataritza/ekoizpena koefizienteak Munduko Bankutik (2012a) hartu dira.

ez ziren industriak esportatzaile arrakastatsu bihurtzeko, ekonomiak irekitzean.

Gizarte handi eta konplexuetan, inoiz ez da jakiten zer emaitza izango dituzten politikek. Garapen-estatuek pragmatikoak izan behar dute, eta zenbait ikuspegi aztertu behar dituzte. Azpimarratu daiteke, adibidez, pertsonak kontuan hartzen dituzten garapen-estatuek oinarritzko gizarte-zerbitzuak zabaldu dituztela. Pertsonen gaitasunetan inbertitzea —osasunaren, hezkuntzaren eta beste zerbitzu publiko batzuen bidez— ez da hazkunde-prozesuaren gehigarri bat, prozesu horren zati baizik (7. eta 8. irudiak). Hazkundeak giza garapena sustatzen badu, esaterako, berehala areagotzen dira kalitatezko lanpostuak.

2. eragilea: pixkanaka munduko merkatuetan sartzea


Munduko merkatuak oso garrantzitsuak izan dira garapenerako. Duela gutxi industrializatu diren herrialde guztiek honako estrategia hau erabili dute: “munduko gainerako tokiek dakitena inportatzea eta haiek behar dutena esportatzea”. Baina are garrantzitsuagoak dira merkatu horiekiko konpromisoaren baldintzak. Pertsonengan inbertitzen ez bada, litekeena da munduko merkatuetatik datozen irabaziak mugatuak izatea. Arrakasta izateko aukera gehiago daude, baldin eta, mundura bat-batean ireki ordez, pixkanaka eta modu ordenatuan integratzen bada herrialdea munduko ekonomian, egoera nazionala kontuan hartuta, eta jendearengan, erakundeetan eta azpiegiturretan inbertitzen badu. Ekonomia txikiak arrakasta izan dute nitxo-produktuekin; estatuak urtetan zehar dagoeneko existitzen diren gaitasunei edo berrien sorrerari emandako babesaren emaitza izan da, kasu askotan, aukeraketa hori.

3. eragilea: gizarte-politiken berrikuntza irmoa

Hazkunde azkarra izan duten herrialdeen artean, gutxi dira inbertsio publiko ikaragarriak egin ez dituztenak —ez azpiegiturretan soilik, baita osasunean eta hezkuntzan ere—. Helburua izan behar luke hazkundeak eta gizarte-politikek elkar indartzeko zikloak sortzea. Askotan, hazkundeak gehiago lagundu du pobrezia murrizten diru-sarreretakiko berdintasun-eza baxua den herrialdeetan, berdintasun-ez hori handia

5. IRUDIA


Munduko salgai-merkataritzaren proportzioari dagokionez, Hegoa-Hegoa merkataritza hirukoiztu baino gehiago egin da 1980-2011 aldian; Iparra-Iparra, berri, murriztu



Oharra: 1980an, Australia, Kanada, Japonia, Zeelanda Berria, Estatu Batuak eta Mendebaldeko Europa zeuden Iparren barruan. Iturria: HDROk kalkulatu, UNSDn (2012) oinarrituta.

6. IRUDIA


Herrialde batzuek emaitza onak lortu dituzte, bai diru-sarreraren alorrean, bai eta GGIn barruan diru-sarrerarekin lotuta ez dauden alderdietan ere



Oharra: 96 herrialdeko talde orekatu batean oinarritu da. Iturria: HDROk kalkulatu.

7. IRUDIA


Eguno GGI-balioek eta aurretik egindako gastu publikoek korrelazio positiboa dute...



Iturria: HDROren kalkuluak eta Munduko Bankua (2012a).

8. IRUDIA

... egungo haurren biziraupenak eta aurretik osasunean egindako gastu publikoek bezala



Iturria: HDROk kalkulatuak, Munduko Bankuan oinarrituta (2012a).

den herrialdeetan baino. Bestalde, berdintasuna sustatzeak, bereziki erlijio-, etnia- eta arrazatalde desberdinen artean, gizarte-gatazka murrizten laguntzen du.

Hezkuntzak, osasun-laguntzak, gizarte-babesek, lege-ahalduntzeak eta gizarte-antolaketak hazkunderan parte hartzeko aukera ematen diote jende pobreak. Sektoreen arteko orekak —bereziki kontuan hartuta nekazaritza— eta enplegu-hedapenaren izaerak eta erritmoak lotura estua dute hazkunderaren bidez diru-sarrerak areagotu ahal izatearekin. Baina litekeena da oinarritzko tresna politikorik ere eskubiderik ez duten taldeak ez ahalduntzea. Gizartean baztertuta dagoen jende pobreak bere kezkek entzunarazteko borrokatzen du, eta gobernuek ez dute beti ebaluatzen ea guztiengana heltzeko diseinatutako zerbitzuek lortzen duten benetan guztiengana iristea. Gizarte-politikak gizarteratzea sustatu behar du —diskriminaziorik eza eta tratu-berdintasuna ziurtatzea funtsezkoa da egonkortasun politiko eta soziala lortzeko—, eta oinarritzko gizarte-zerbitzuak jarri behar ditu, epe luzeko hazkunde ekonomikoari eutsi ahal izateko, langile osasuntsu eta heziak sortzen lagunduz. Ez da beharrezkoa zerbitzu horiek guztiak publikoak izatea. Baina estatuak ziurtatu behar du herritar guztiak dituztela eskura giza garapenerako oinarritzko baliabideak (3. laukia).

Beraz, garapena aldatzeko eta giza garapena sustatzen duen garapen bat lortzeko agendak alderdi asko ditu. Jendearen gaitasunak areagotu behar ditu, oinarritzko zerbitzuak unibertsal bihurtuz. Erakunde publikoen eta gizarte-erakundearen funtzionamendua hobetu behar du, bidezko hazkundea sustatzeko eta onurak guztiengana iristeko. Murriztu egin behar ditu ekin-tza ekonomikoen eta gizarte-mugikortasunaren gaineko muga burokratiko eta sozialak. Eta buruzagiak erantzule bihurtu behar ditu.

Bultzadari eustea

Hegoaldeko herrialde askok arrakasta handia izan dute. Baina lorpen handienak egin dituzten herrialdeek ere ez daukate ziurtatuta etorkizunean arrakasta izango dutenik. Nola jarrai dezakete Hegoaldeko herrialdeek giza garapenean erritmo horretan aurrera egiten, eta nola heda daiteke garapen hori beste herrialde batzuetara? Txostenak hori errazten duten lau arlo garrantzitsu

Zergatik begiratu du New York hiriak Hegoalderantz pobreziaaren aurkako politiken alorrean aholkuak jasotzeko?

New York hirian, lanean ari gara gure biztanleen bizitzak zenbait alderditan hobetzeko. Gure eskoletako hezkuntzaren kalitatea hobetzen jarraitzen dugu. New Yorkeko biztanleen osasuna hobetu dugu, erretzea eta gizentasuna murriztuz. Eta hiriaren paisaia hobetu dugu, bizikleta-bideak gehituz eta ehunka mila zuhaitz landatuz.

Horrez gain, pobrezia murrizten saiatu gara, eta, horretarako, autosufizientzia eraikitzeko eta gure gazteak etorkizun oparorako prestatzeko modu berri eta hobeak aurkitu ditugu. Aukera Ekonomikorako Zentroa jarri dugu ahalagin horren buru. Haren helburua da pobreziaaren zikloa hausteko estrategiak identifikatzea, hezkuntzaren, osasunaren eta enpleguaren alorreko ekimen berritzaileen bidez.

Azkeneko sei urteetan, Zentroak 50 programa pilotu baino gehiago jarri ditu abian, hiriko agentziekin eta ehunka komunitate-erakunderekin batera. Ebaluazio-estrategia pertsonalizatu bat sortu du programa pilotu horietako bakoitzerako, haien jardueraren jarraipena egiteko, emaitzak alderatzeko eta erabakitzeko zer estrategia diren onenak pobrezia murrizteko eta aukerak areagotzeko. Arrakasta duten programak funts publiko eta pribatu berriekin finantzatzen dira. Arrakasta ez dutenak, berriz, bertan behera uzten dira, eta baliabideak beste estrategia batzuetan inbertitzen dira. Zentroaren aurkikuntzak gobernu-agentziei, politika-egileei, irabazi-asmorik gabeko erakundeei eta dohaintza-emaile pribatuei jakinarazten zaizkie, bai eta herrialdean eta mundu osoan pobreziaaren zikloa hausteko bide berriak bilatzen ari diren kideei ere.

New Yorkek munduko aditu onenetako batzuk ditu, zorionez, bere negozio eta unibertsitateetan lanean, baina badakigu asko ikas dezakegula beste toki batzuetan egin diren programetatik. Horregatik, nazioartean pobreziaaren aurka erabiltzen ari diren etorkizun handiko estrategiak ikertu zituen Zentroak, hasieran.

2007an, Zentroak Opportunity NYC: Family Rewards programa jarri zuen abian: Estatu Batuetako lehenengo diru-transferentzia baldintzatuen programa. 20 herrialdetan baino gehiagotan martxan jarritako antzeko programetan oinarrituta, Family Rewards programak pobrezia murrizten du, familiei osasun-laguntzaren, hezkuntzaren eta lanbide-heziketaren alorreko prebentziozko pizgarriak emanez. Family Rewards diseinatzean, Brasilgo, Mexikoko eta beste dozena bat herrialdetako irakaspenak hartu genituen kontuan. Gure hiru urteko programa pilotua amaitzean, bagenekien programaren zer elementuk funtzionatzen zuten New York hirian eta zeinek ez; orain, informazio hori lagungarria izan daiteke mundu osoko programa-belaunaldi berri baterako.

Opportunity NYC: Family Rewards abian jarri aurretik, Toluca (Mexiko) hirian izan nintzen, Mexikoko diru-transferentzia baldintzatuen programa federal arrakastatsua zuzenean ikusteko: Oportunidades. Horrez gain, parte hartu genuen Nazio Batuek Iparra-Hegoa esperientziak trukatzeko antolatutako programa batean, eta Rockefeller Fundazioarekin, Munduko Bankuarekin, Amerikako Estatu Erakundearekin eta beste erakunde batzuekin eta nazioarteko politika-egileekin lan egin genuen, Latinoamerikako, Indonesiako, Hegoafrikako eta Turkiako diru-transferentzia baldintzatuen programen esperientziak trukatzeko.

Gure nazioarteko esperientzia-trukeak ez dira diru-transferentziaren ekimen horietara mugatzen; hiriko garraioen, hezkuntza-ekimen berrien eta beste programa batzuen ikuspegi berritzaileak ere landu ditugu.

Inork ez dauka ideia onen monopoliorik; horregatik, New Yorkek beste hiri eta herrialde batzuen jardunbide egokienetatik ikasten jarraituko du. Eta, gure hirian programa berriak egokitzen eta ebaluatzen ditugunez, badaukagu aukera mesedea itzultzeko eta munduko komunitateei laguntzeko.

proposatzen ditu: ekitatea areagotzea, hitz egiteko eta parte hartzeko aukera ematea, ingurumen-presioei aurre egitea, eta aldaketa demografikoa kudeatzea. Adierazten du, bestalde, ekintza politikorik ez egiteak kostu handia duela eta anbizio handiagoko politikak behar direla.

Ekitatea areagotzea



Ekitate handiagoa izatea, baita gizonen eta emakumeen artean eta taldeen artean ere, berez baliotsua izateaz gain, funtsezkoa da giza garapena sustatzeko. Hezkuntza da horretarako tresna indartsuenetakoa bat; izan ere, jendeak bere buruarengan duen konfiantza areagotzen du, eta erraztu egiten die lanpostu hobeak lortzea, eztabaida publikoetan parte hartzea eta gobernuari eskaerak egitea osasun-laguntzari, gizarte-segurtasunari eta beste eskubide batzuei buruz.

Hezkuntzak onura nabarmenak dakartza osasunean eta heriotza-tasen murrizketan (4. laukia). Txosten honetarako egindako ikerketen bidez jakin ahal izan dugunez, amaren hezkuntza

familiaren diru-sarrera edo aberastasuna baino garrantzitsuagoa da haurrak bizirik irauteko, eta esku-hartze politikoei eragin handiagoa dute hasierako hezkuntza-maila baxua duten toki-etan. Horrek ondorio nabarmenak ditu politiken esku-hartzeetan; izan ere, erakusten digu garrantzitsuagoa dela nesken hezkuntza hobetzea, familien diru-sarrerak handitzea baino.

Txostenak argudiatzen du asmo handiko politikak behar direla. Garapen azkarra izan duten tokiak erakutsi dute GGI apala duten herrialdeak GGI handia edo oso handia duten herrialdeen giza garapen mailarantz gertura daitezkeela. 2050erako, GGI agregatua %52 igo daiteke Saharaz hegoaldeko Afrikan (0,402tik 0,612ra), eta %36 Hego Asian (0,527tik 0,714ra). Egoera horretan egiten diren esku-hartze politikoei eragin positiboa izango dute, halaber, pobreziaaren aurkako borrokan. Ezer ez egitearen kostuak, aldiz, gero eta handiagoak izango dira; batez ere, GGI apala duten herrialdeetan, kalteberenak baitira. Adibidez, hezkuntza unibertsalaren asmo

Txostenak argudiatzen du asmo handiko politikak behar direla



Giza garapenari dagokionez, ezer ez egitearen kostua handiagoa da GGI-balio apalak dituzten herrialdeetan. Per capita BPGren galerari dagokionez, berriz, ezer ez egitearen kostua berdina da, proportzionalki, herrialde guztietan, GGI-balioa edozein dela ere.

Iturria: HDROk kalkulatu, Pardee Center for International Futuresen (2013) oinarrituta.

handiko politikarik ez aplikatzea kaltegarria izango da etorkizuneko belaunaldien giza garapenaren funtsezko zenbait oinarritarako.

Hitz egiteko eta parte hartzeko aukera ematea

Jendeak ezin badu modu esanguratsuan parte hartu beren bizitzari eragiten dieten gertaeretan eta prozesuetan, giza garapenaren bide nazionalak ez dira izango ez desiragarriak ez iraunkorrak. Jendeak aukera izan behar luke politiken eraketan eta emaitzetan eragiteko, eta gazteek bereziki eskubidea izan behar lukete aukera ekonomiko hobeak eta parte-hartze eta erantzukizun politiko handiagoa espero izateko.

Iparraldean eta Hegoaldean atsekabea gero eta handiagoa da, jendeak aukera handiagoa izan nahi duelako bere kezkak adierazteko

eta politikan eragiteko, batez ere oinarrizko gizarte-babesari dagokionez. Gazteak dira protesta sutsuenak egiten ari direnetako batzuk; neurri batean, enpleguan murrizketak egiten ari direlako eta hezkuntza jaso duten gazteek lan-aukera gutxi dituztelako. Historian zehar, hainbat herri-matxina egin dira gobernu axolagabeen aurka. Horrek desbideratu egin dezake giza garapena, ezinegonak eragotzi egiten dituelako inbertsioa eta hazkundea, eta gobernu autokratikoez legeri eta ordenari eustera bideratzen dituztelako baliabideak.

Zaila da aurreikustea noiz iritsiko diren gizarteak une kritiko batera. Ohikoa izaten da protesta masiboak egotea, batez ere hezkuntza jaso duten pertsonen eskutik, aukera ekonomikoen aurreikuspen ilunek murriztu egiten dutenean jardura politikoan parte hartzearen aukera-kostua. Orduan, "parte-hartze politikoko

4. LAUKIA



Zergatik izan daitezke desberdinak biztanleria-aurreikuspenak Koreako Errepublikan eta Indian?

Hezkuntzako lorpenak azkar hobetu dira Koreako Errepublikan. 50eko hamarkadan, eskola-adinean zeuden haur askok ez zuten hezkuntza formalik. Gaur egun, Koreako emakume gazteak mundu osoan hezkuntza onena duten emakumeen artean daude: erdiak baino gehiagok unibertsitate-ikasketak ditu. Hori dela eta, etorkizuneko adindu korearrek gaur egungoek baino askoz hezkuntza hobea izango dute (ikus irudia), eta hezkuntzaren eta osasunaren arteko korrelazio positiboaren ondorioz, osasuntsuagoak ere izango dira, ziur asko.

Matrikulazio-tasek (handiak dira) berdin jarraitzen badute, 14 urtetik beherako biztanleriaren proportzioa 2010eko %16tik %13ra murriztuko da 2050ean. Biztanleriaren hezkuntza-mailan ere, aldaketa nabarmena egongo da; izan ere, aurreikuspenen arabera, hirugarren mailako hezkuntza dutenen proportzioa %26tik %47ra igoko da.

Indian, egoera oso bestelakoa da. 2000. urtearen aurretik, helduen erdiak baino gehiagok ez zuten hezkuntza formalik. Nahiz eta oinarrizko eskolatzeari asko areagotu den eta hezkuntza hobea duten indiarren kopuruak izugarri egin duen gora (Indiaren hazkunde ekonomikoaren funtsezko gako bat), hezkuntzarik gabeko helduen proportzioak poliki egingo du behera. Hezkuntza-maila baxuagoa denez, batez ere emakumeen artean, Indiako biztanleria azkar areagotuko da: Indiak Txina gaindituko du, eta munduko herrialderik jendetsuena bihurtuko da. Demagun, baikorrak izanik, Indiak lasterbidea hartu eta Korearenean antzeko hezkuntza-hedapena duela; kasu horretan ere, Indiaren hezkuntza-banaketa berdintasun-ez handia izango du 2050ean, eta hezkuntzarik gabeko helduen taldea handia izango da (gehienbat adinduak). Nolanahi ere, egoera horretan hirugarren mailako hezkuntza izango duen hedapenak langile gazte eta heldu heziak egotea eragingo du.

Biztanleriaren eta hezkuntzaren etorkizun alderatuak Koreako Errepublikan eta Indian



Iturria: Lutz and KC 2013.

modu intentsiboak” erraz koordinatzen dira, komunikabide berrien bidez.

Ingurumen-presioei aurre egitea

Nahiz eta guztioi eragiten diguten ingurumenarekin lotutako mehatxuek, hala nola klima-aldaketak, deforestazioak, airearen eta uraren kutsadurak eta natura-hondamendiek, herrialde eta komunitate pobreak dira kaltetuenak. Klima-aldaketa ingurumen-mehatxu kronikoak areagotzen ari da dagoeneko, eta ekosistemen galerak bizibidea ateratzeko aukerak murrizten ari dira; batez ere, pobreen kasuan.

Nahiz eta GGI apala duten herrialdeek eragiten duten gutxien klima-aldaketa, litekeena da

haiek izatea galerarik handienak urteko plubiositatean eta eraginik handienak plubiositate horren aldakortasunean; horrek ondorio tamalgarriak ditu nekazaritzan eta bizibideetan. Galera horien norainokoak azpimarratzen du beharrezkoa dela berehala neurriak hartzea, jendeak klima-aldaketari aurre egiteko duen indarra handitzeko.

Ziur asko, ezer ez egitearen kostua handia izango da. Zenbat eta gehiago atzeratu ekintzak, orduan eta handiagoa izango da kostua. Ekonomia eta gizarte iraunkorrak ziurtatzeko, beharrezkoa da politika berriak egitea eta egiturak aldatzea, giza garapenaren eta klima-aldaketaren helburuak bateratu, eta, hartara, emisio gutxiko eta klima-erresilientziako estrategiak eta finantziario-mekanismo publiko-pribatu berritzaileak sortzeko.

Aldaketa demografikoa kudeatzea

1970etik 2011ra bitartean, munduko biztanleria 3.600 milioitik 7.000 milioira igaro da. Biztanleria horrek hezkuntza hobea jasotzen duen heinean, hazkunde-erritmoa murriztu egingo da. Biztanleriaren adin-egiturak eta biztanle-kopuruak eragina dute garapenaren aurreikuspenetan. Alde horretatik, mendekotasun-tasa gero eta kezka handiagoa bihurtzen ari da —hau da, haurrak gehi zaharrak zati lanerako adinean dagoen 15-64 urteko biztanleria—.

Herrialde pobreetako batzuek “dibidendu demografikoaren” onurak jasoko dituzte, lanerako adinean dagoen biztanleriaren proportzioak gora egiten duen heinean, baina baldin eta ekintza politiko sendoa badago soilik. Nesken hezkuntzak, adibidez, berebiziko garrantzia du dibidendu demografikorako. Hezkuntza jaso duten emakumeek haur gutxiago izan ohi dituzte, eta, era berean, haurrak osasuntsuagoak izan ohi dira eta hezkuntza hobea jaso ohi dute; gainera, herrialde askotan, hezkuntza jaso duten emakumeek hezkuntzarik ez duten langileek baino soldata hobeak izaten dituzte.

Bestalde, Hegoaldeko eskualde aberatsenек biztanleriaren adinarekin lotutako bestelako arazo bati egin beharko diote aurre; izan ere, lanerako adinean dagoen biztanleriaren proportzioak behera egingo du. Biztanleriaren zahartze-tasa garrantzitsua da, garapen-bidean dauden herrialdeek ahalegin handia egin beharko baitute biztanle adinduen beharrei erantzuteko, oraindik ere pobreak baldin badira. Garapen-bidean dauden herrialde askok tarte labur bat dute, orain, dibidendu demografikoaren onura guztiak jasotzeko.

Dena den, joera demografikoak ez dira deterministak. Hezkuntza-politikek aldatu egin ditzakete, zeharka bada ere. Txostenak bi egoera aurkezten ditu, 2010–2050 aldirako: oinarritzko kasuaren egoera, hezkuntza-maila bakoitzean matrikulazio-tasa berei eusten diena; eta lasterbidearen egoera, hasieran hezkuntza-maila apalenak dituzten herrialdeek asmo handiko hezkuntza-helburuak jartzearekin lotua. GGI apala dutenen mendekotasun-tasaren beherakada oinarritzko kasuaren egoeran halako bi baino gehiago da lasterbidearen egoeran. Asmo handiko hezkuntza-politikei esker, GGI ertaina eta handia duten herrialdeek aurreikuspenen arabera mendekotasun-tasetan izango dituzten igoerak murriztu ahal izango dituzte,

biztanleria zaharturanzko trantsizio demografikoa egitea ez dadin horren zaila izan.

Demografia-erronka horiei heltzeko, beharrezkoa izango da hezkuntza-maila hobetzea eta lan-aukerak areagotzea —langabezia murriztuz, lanaren produktibitatea sustatuz eta langileen parte-hartzea handituz, batez ere emakumeena eta langile zaharrena—.

Aro berri baterako governantza eta lankidetz

Hegoaldeak sustatutako hitzarmen berriek eta horiek dakarten aniztasunak erronkak ekarri dizkiete egungo erakundeei eta prozesuei, multilateralismoaren eremu tradizionaletan —finantza, merkataritza, inbertsioa eta osasuna—, batzuetan zuzenean eta beste batzuetan zeharka, eskualdeko eta azpieskualdeko sistema alternatiboen bidez. Munduko eta eskualdeko governantza alderdi askotako konbinazio bat bihurtzen ari da, barnean hartzen baititu hitzarmen berriak nahiz zenbait alorretan bultzada kolektiboa behar duten egitura zaharrak. Munduko erakundeen erreformak osatzeko, beharrezkoa da eskualdeko erakundeei lankidetz handitzea —eta, kasu batzuetan, eskualdeko erakunde horiei aginte zabalago ematea—. Erakundeen erantzukizuna herrialde-multzo handiago batera zabaldu behar da, bai eta interes-talde zabalago batera ere.

Nazioarteko governantzaren egungo erakunde eta printzipioetako asko egungo errealitatearekin bat ez datorren mundu-ordena baterako diseinatu ziren. Ondorioetako bat da erakunde horietan Hegoaldeak behar baino askoz ordezkari gutxiago dituela. Nazioarteko erakundeei ordezkaritza, gardentasun eta erantzukizun handiagoa izan behar dute, luzaroan iraun nahi badute. Egia esan, gobernu arteko prozesu batzuk indartu egingo lirateke, Hegoaldeak parte-hartze handiagoa izango balu; izan ere, finantza- eta teknologia-baliabide eta giza baliabide ugari jar ditzake.

Alde horretatik, gobernuak subiranotasun nazionala babestearekin kezkatuta daude, logikoa denez. Subiranotasun nazionalari lehentasun osoa emateak zero-baturako pentsaera susta dezake. Hori baino hobe da subiranotasun arduratsua. Izan ere, subiranotasun horren bidez, herrialdeek agintzen dute arauetan oinarritutako nazioarteko lankidetz justu eta erantzule baten alde egingo dutela, ongizate globala hobetzen duten ahalegin

kolektiboetan parte hartuz. Bestalde, estatuek herritarren giza eskubideak eta segurtasuna bermatzea eskatzen du subiranotasun arduratsuak. Ikuspegi horren arabera, subiranotasuna ez da eskubide bat soilik, erantzukizun bat ere bada.

Mundu aldakor honek eragin handiak ditu ondasun publikoen eskaintzan. Nazioarteko kezka global batzuek berehalako arreta eta lankidetzak eskatzen dute; adibidez, merkataritzak, migrazioak eta klima-aldaketak. Kasu batzuetan, eskualdeko erakundeek jar ditzakete ondasun publikoak, eta, hartara, ez da alderdi askotako foro handietan aurrerapena moteltzen duen polarizaziorik gertatzen. Dena den, eskualdeko lankidetzak gero eta handiagoak desabantailak ere izan ditzake —erakundeen zenbait mailatako konplexutasun zatitu batez gain—. Beraz, “aniztasun koherentea” bermatzea da erronka —maila guztietako erakundeek modu koordinatu eta zabal batean lan egiteko—.

Estatu kideez gain, munduko gizarte zibilak ere erantzukizuna eska diezaieke nazioarteko gobernantza-erakundeei. Gizarte zibilararen erakundeek gardentasun globala ezartzea eta arauak finkatzea eragin dute dagoeneko, alor hauetan: sorospena, zorra, giza eskubideak, osasuna eta klima-aldaketa. Gizarte zibilararen sareak komunikabide eta komunikazioaren teknologia berriei baliu daitezke orain. Dena den, gizarte zibilararen erakundeek ere beren legimititatea eta erantzukizuna zaindu behar dute, gerta baitaitezke egokiak ez diren formak hartzea. Nolanahi ere, erakundeek herritarren sareekin eta komunitateekin lan egiteko duten gaitasunaren arabera izango da nazioarteko gobernantzaren etorkizuneko legimititatea.

Ondorioak: aro berri baterako kideak

Hegoaldeko herrialde askok erakutsi dute, dagoeneko, zer egin daitekeen giza garapena produktiboa eta iraunkorra izateko, baina bidearen zati bat baino ez dute egin. Datozen urteetarako, Txostenak bost ondorio proposatzen ditu.

Hegoaldean indar ekonomikoak areagotzearekin batera, giza garapenarekiko konpromisoa behar da

Giza garapenean inbertitzeak, arrazoi moralak izateaz gain, baditu beste justifikazio batzuk ere:

osasuna, hezkuntza eta gizarte-ongizatea hobetzea funtsezkoa da munduko ekonomia lehiakor eta dinamikoa lortzeko. Komeni da inbertsio horiek nagusiki pobreei eragitea —haiek merkatuekin lotuz eta haien bizibide-aukerak areagotuz—. Pobrezia injustizia bat da, eta ekintza jakinen bidez konpon daiteke eta konpondu behar da.

Politika onek, pertsonen gaitasunez gain, gizarte-gaitasunak ere hobetu behar dituzte. Pertsonak gizarte-instituzioen barruan jarduten dute, eta instituzio horiek mugatu edo areagotu egin dezakete pertsonen garapen-ahalmena. Giza ahalmena mugatzen duten gizarte-arauak aldatzen dituzten politikek, hala nola ezkontza goiztiarren eta dotea eskatzearen aurkakoei, beren ahalmen osoa garatzeko aukera handitzen diete pertsonari.

Garapen apaleko herrialdeek garapen-bidean dauden ekonomiek Hegoaldean izandako arrakastatik ikas dezakete eta horretaz baliatu

Hegoaldean nahiz Iparraldean gertatu den finantza-erreserben eta aberastasun-funtsen sekulako metaketari esker, garapen zabal eta azkarra lor dezakegu. Nahiz eta funts horien zati txiki bat bakarrik erabili giza garapenerako eta pobrezia desagerrarazteko, eragina handia litzateke. Era berean, Hegoa-Hegoa merkataritzak eta inbertsio-fluxuek atzerriko merkatuak altxa ditzakete, garapen-aukerak areagotzen dituzten modu berrien bidez; adibidez, eskualdeko eta munduko balio-kateetan parte hartuz.

Hegoa-Hegoa merkataritza eta inbertsioak garatzeak fabrikazio-gaitasuna gutxiago garatuta daukaten beste eskualde eta herrialde batzuetara eramatea eragin dezake. Azkenaldian Txinak eta Indiak sortutako enpresa-elkarteak eta Afrikan abian jarri diren fabrikazio-inbertsioak eskulan zabal baten hasiera baino ez dira. Nazioarteko ekoizpen-sareek garapen-prozesua bizkortzeko aukera ematen dute, ekoizpen-modu sofistikatuagoetara jauzi izugarria egiteko aukera ematen dietelako herrialdeei.

Erakunde eta lankidetzak berriek eskualdeko integrazioa eta Hegoa-Hegoa harremanak erraz ditzakete

Erakunde eta lankidetzak berriek jakintza, esperientziak eta teknologia partekatzen lagun diezaiekete herrialdeei. Horrekin batera,

Finantza-erreserben sekulako metaketari esker, garapen zabal eta azkarra lor dezakegu

erakunde berri eta sendagoek merkataritza eta inbertsioa susta ditzakete, eta Hegoaldean esperientziak partekatzea bizkortu. Urrats bat litzateke Hegoaldeko Batzorde berri bat eratzea, Hegoaldeko aniztasunak elkartasuna indartu dezakeelako ikuspegi berria zabaltzeko.

Hegoaldeak eta gizarte zibilak ordezkaritza handiagoa izateak munduko erronka nagusietan azkarrago aurrera egiten lagun dezake

Hegoaldearen goraldiaren ondorioz, iritzi-aniztasun handiagoa dago munduan. Aukera paregabea da osagai guztiak ordezkatzeko dituzten gobernantza-erakundeak eraikitzeke, eta aniztasun hori munduko arazoen irtenbideak aurkitu ahal izateko erabiltzeko.

Nazioarteko erakundeetarako printzipio gidari berriak behar dira, eta Hegoaldearen esperientzia barnean hartu behar dute. G20ren sorrera urrats handi bat izan da norabide horretan, baina Hegoaldeko herrialdeek ordezkaritza handiagoa izan behar dute Bretton Woods erakundearen, Nazio Batuen Erakundearen eta nazioarteko beste erakunde batzuetan.

Herrialdeko nahiz herrialdez haraindiko gizarte zibil eta gizarte-mugimendu aktiboak komunikabideak erabiltzen ari dira, gobernantza justua eta bidezkoa nahi dutela zabaltzeko. Funtsezko mezuak eta eskaerak adierazteko gero eta plataforma eta mugimendu gehiago daudenez, gobernantza-erakundeek printzipio demokratikoagoak eta barne-hartzaileagoak egokitzeko erronka dute. Ikuspegi orokorrago batetik, berdintasun-ez gutxiagoko mundu bidezkoago bat lortzeko, beharrezkoa da iritziek beren lekua izatea eta elkar-irizketaren publikorako sistema bat izatea.

Hegoaldearen goraldiak ondasun publikoen eskaintza handitzeko aukera berriak ematen ditu

Mundu iraunkor bat izateko, beharrezkoa da ondasun publiko global gehiago eskaintzea. Munduan gero eta arazo gehiago daude, eta gero eta presazkoagoak dira: klima-aldaketa, nazioarteko ekonomiaren eta finantzen ezegonkortasuna, terrorismoa, nuklearren ugaritzea... Erantzun global bat eman behar zaie. Hala ere, zenbait arlotan, nazioarteko lankidetzaren motela da oraindik —eta, batzuetan, zalantzakoa—.

Alde horretatik, Hegoaldearen goraldiak aukera berri bat ematen du ondasun publiko globalak modu eraginkorragoan eskaintzeko eta gaur egun geldirik dauden arazo globalak konpontzeko.

Kasu gehienetan, “publikotasuna” eta “pribatutasuna” ez dira ondasun publiko baten berezko ezaugarriak, kontzeptu sozialak baizik. Beraz, politika-aukeraketa bat adierazten dute. Herrialdeetako gobernuak esku har dezakete eskaintza gutxiegia dagoenean herrialdean, baina, mundu osoko erronkak badira, nazioarteko lankidetzaren behar da, eta, horretarako, ezinbestekoa da gobernuak elkarrekin jarduteko borondatea izatea. Premiazko erronka asko daudenez, beharrezkoa izango da pertsonen eta erakundearen buruzagitza senda eta konprometitua, publikoa zer den eta pribatua zer den zehazten aurrera egiteko.

* * *

Giza Garapenari buruzko Txostena 2013 gaur egungo munduaren testuingurua azaltzen digu, eta bide bat erakusten die politika-egileei eta herritarrei, gero eta harreman estuagoak dituen mundu honetan nabigatzeko eta gero eta handiagoak diren munduko erronkei aurre egiteko. Azaltzen du nola ari diren aldatzen munduko boterearen, parte-hartzearen eta aberastasunaren dinamikak, eta zehazten du zer politika eta erakunde berri behar diren XXI. mendeko errealitate horiei heltzeko eta giza garapena sustatzeko, ekitate, iraunkortasun eta gizarteratze handiagorako. Giza garapenean aurrera egiteko, mundu osoko eta herrialdeko ekintzak eta erakundeak behar dira. Munduari dagokionez, beharrezkoa da erakundeak erreformatzea eta berrikuntza sustatzea, ondasun publiko globalak babesteko eta eskaintzeko. Herrialdeetan, berriz, garrantzitsua da estatuek gizarte-justiziaren alde egiteko konpromisoa hartzea; izan ere, neurri berek guztientzat balio dutela dioten politika teknokratikoak ez dira ez errealistak ez eraginkorrak, herrialdeen testuinguruak, kulturak eta erakundearen egoerak oso desberdinak baitira. Nolanahi ere, bidezko giza garapen iraunkorra lortzeko, lagungarriak dira zenbait printzipio orokor; adibidez, gizarte-kohesioa, estatuak hezkuntzarekiko, osasunarekiko eta gizarte-babesarekiko konpromisoa hartzea, eta merkataritzara irekitzea.

Ondasun publiko globalak
modu eraginkorragoan
emateko eta gaur egun
geldirik dauden arazo
globalak argitzeko aukera
berriak ematen ditu
Hegoaldearen hazkundeak

GGIren 2012ko sailkapena eta sailkapen horrek 2011tik 2012ra bitartean izandako aldaketak

Afganistan	175		
Afrika Erdiko Errepublika	180	−1	↓
Albania	70	−1	↓
Alemania	5		
Aljeria	93	−1	↓
Ameriketako Estatu Batuak	3	−1	↓
Andorra	33	−1	↓
Angola	148		
Antigua eta Barbuda	67	−1	↓
Arabiar Emirerri Batuak	41	−1	↓
Argentina	45	−1	↓
Armenia	87	−1	↓
Australia	2		
Austria	18		
Azerbaijan	82	−1	↓
Bahamak	49		
Bahrain	48		
Bangladesh	146	1	↑
Barbados	38		
Belgika	17		
Belize	96		
Benin	166		
Bhutan	140	1	↑
Bielorrusia	50	1	↑
Boli Kosta	168	1	↑
Boliviako Estatu Plurinazionala	108		
Bosnia-Herzegovina	81	−1	↓
Botswana	119	−1	↓
Brasil	85		
Brunei Darussalam	30		
Bulgaria	57		
Burkina Faso	183		
Burundi	178	−1	↓
Cabo Verde	132	−1	↓
Costa Rica	62		
Danimarka	15		
Djibuti	164		
Dominika	72		
Dominikar Errepublika	96	2	↑
Egipto	112		
Ekialdeko Timor	134		
Ekvador	89		
Ekvatore Ginea	136		
El Salvador	107	−1	↓
Eritrea	181	1	↑
Erresuma Batua	26		
Errumania	56	−1	↓
Errusiar Federazioa	55		
Eslovakia	35		
Eslovenia	21		
Espainia	23		
Estonia	33	1	↑
Etiopia	173	−1	↓
Fiji	96	2	↑
Filipinak	114		
Finlandia	21		
Frantzia	20		
Gabon	106		
Gambia	165		
Georgia	72	3	↑
Ghana	135		
Ginea	178	−1	↓

Ginea Bissau	176		
Grenada	63	−1	↓
Grezia	29		
Guatemala	133		
Guyana	118	1	↑
Haiti	161	1	↑
Hegoafrika	121	1	↑
Herbehereak	4		
Honduras	120		
Hong Kong, Txina (ALB)	13	1	↑
Hungaria	37		
India	136		
Indonesia	121	3	↑
Irak	131	1	↑
Irango Islamiar Errepublika	76	−2	↓
Irlanda	7		
Islandia	13		
Israel	16		
Italia	25		
Jamaika	85	−2	↓
Japonia	10		
Jordania	100		
Kamerun	150		
Kanada	11	−1	↓
Kanbodia	138		
Kazakhstan	69	−1	↓
Kenya	145		
Kirgizistan	125		
Kiribati	121		
Kolonbia	91		
Komoreak	169	−1	↓
Kongo	142		
Kongoko Errepublika Demokratikoa	186		
Koreako Errepublika	12		
Kroazia	47	−1	↓
Kuba	59		
Kuwait	54	−1	↓
Laosko Herri Errepublika Demokratikoa	138		
Lesotho	158	1	↑
Letonia	44	1	↑
Libano	72		
Liberia	174		
Libia	64	23	↑
Liechtenstein	24		
Lituania	41	2	↑
Luxenburgo	26		
Madagaskar	151		
Malawi	170	1	↑
Malaysia	64	1	↑
Maldivak	104	−1	↓
Mali	182	−1	↓
Malta	32	1	↑
Maroko	130		
Mauritania	155		
Maurizio	80	−1	↓
Mazedoniako Jugoslaviar Errepublika Ohia	78	−2	↓
Mexiko	61		
Mikronesiako Estatu Federatuak	117		
Moldaviako Errepublika	113		
Mongolia	108	2	↑
Montenegro	52	−2	↓
Mozambike	185		

Myanmar	149		
Namibia	128		
Nepal	157		
Niger	186	1	↑
Nigeria	153	1	↑
Nikaragua	129		
Norvegia	1		
Oman	84	−1	↓
Pakistan	146		
Palau	52	2	↑
Palestina	110	1	↑
Panama	59	1	↑
Papua Ginea Berria	156		
Paraguai	111	−2	↓
Peru	77	−1	↓
Polonia	39		
Portugal	43	−3	↓
Qatar	36		
Ruanda	167		
Saint Kitts eta Nevis	72	−1	↓
Saint Vincent eta Grenadinak	83	−2	↓
Salomon Uharteak	143		
Samoa	96		
Santa Luzia	88		
Sao Tome eta Principe	144		
Saudi Arabia	57		
Senegal	154	−2	↓
Serbia	64		
Seychelleak	46		
Sierra Leona	177	2	↑
Singapur	18		
Siriako Arabiar Errepublika	116		
Sri Lanka	92		
Sudan	171	−1	↓
Suedia	7		
Suitza	9		
Surinam	105		
Swazilandia	141	−1	↓
Thailandia	103	1	↑
Tajikistan	125	1	↑
Tanzaniako Errepublika Batua	152	1	↑
Togo	159	1	↑
Tonga	95		
Trinidad eta Tobago	67	−1	↓
Tunisia	94		
Turkia	90		
Turkmenistan	102		
Txad	184		
Txekiarr Errepublika	28		
Txile	40		
Txina	101		
Uganda	161		
Ukraina	78		
Uruguai	51		
Uzbekistan	114	1	↑
Vanuatu	124	−2	↓
Venezuelako Bolibartar Errepublika	71	−1	↓
Vietnam	127		
Yemen	160	−2	↓
Zambia	163		
Zeelanda Berria	6		
Zimbabwe	172	1	↑
Zipre	31		

Oharra: datu eta metodologia sendoak erabiliz, 2011tik 2012ra bitartean herrialdeen sailkapena zenbat postu igo den edo jaitsi den adierazten dute balio positibo edo negatiboek eta geziek; zuriz dauden espazioek, berriz, aldaketarik ez dela egon adierazten dute.

Giza garapenaren indizeak

	Giza Garapenaren Indizea	Berdintasun-ezaren arabera Doitutako GGI	Generoaren alorreko Berdintasun-ezaren Indizea	Alderdi Anitzeko Pobreziaren Indizea			
GGIren sailkapena	Balioa	Balioa	Sailkapena	Balioa	Sailkapena	Balioa	Urtea
OSO GIZA GARAPEN HANDIA							
1 Norvegia	0,955	0,894	1	0,065	5	..	
2 Australia	0,938	0,864	2	0,115	17	..	
3 Ameriketako Estatu Batuak	0,937	0,821	16	0,256	42	..	
4 Herbehereak	0,921	0,857	4	0,045	1	..	
5 Alemania	0,920	0,856	5	0,075	6	..	
6 Zeelanda Berria	0,919	..	..	0,164	31	..	
7 Irlanda	0,916	0,850	6	0,121	19	..	
8 Suedia	0,916	0,859	3	0,055	2	..	
9 Suitza	0,913	0,849	7	0,057	3	..	
10 Japonia	0,912	..	..	0,131	21	..	
11 Kanada	0,911	0,832	13	0,119	18	..	
12 Koreako Errepublika	0,909	0,758	28	0,153	27	..	
13 Hong Kong, Txina (ALB)	0,906	..	..	..	..	..	
13 Islandia	0,906	0,848	8	0,089	10	..	
15 Danimarka	0,901	0,845	9	0,057	3	..	
16 Israel	0,900	0,790	21	0,144	25	..	
17 Belgika	0,897	0,825	15	0,098	12	..	
18 Austria	0,895	0,837	12	0,102	14	..	
18 Singapur	0,895	..	..	0,101	13	..	
20 Frantzia	0,893	0,812	18	0,083	9	..	
21 Finlandia	0,892	0,839	11	0,075	6	..	
21 Eslovenia	0,892	0,840	10	0,080	8	0,000	2003
23 Espainia	0,885	0,796	20	0,103	15	..	
24 Liechtenstein	0,883	..	..	..	..	..	
25 Italia	0,881	0,776	24	0,094	11	..	
26 Luxenburgo	0,875	0,813	17	0,149	26	..	
26 Erresuma Batua	0,875	0,802	19	0,205	34	..	
28 Txekiar Errepublika	0,873	0,826	14	0,122	20	0,010	2002/2003
29 Grezia	0,860	0,760	27	0,136	23	..	
30 Brunei Darussalam	0,855	..	..	..	..	..	
31 Zipre	0,848	0,751	29	0,134	22	..	
32 Malta	0,847	0,778	23	0,236	39	..	
33 Andorra	0,846	..	..	..	..	..	
33 Estonia	0,846	0,770	25	0,158	29	0,026	2003
35 Eslovakia	0,840	0,788	22	0,171	32	0,000	2003
36 Qatar	0,834	..	..	0,546	117	..	
37 Hungaria	0,831	0,769	26	0,256	42	0,016	2003
38 Barbados	0,825	..	..	0,343	61	..	
39 Polonia	0,821	0,740	30	0,140	24	..	
40 Txile	0,819	0,664	41	0,360	66	..	
41 Lituania	0,818	0,727	33	0,157	28	..	
41 Arabiar Emirerri Batuak	0,818	..	..	0,241	40	0,002	2003
43 Portugal	0,816	0,729	32	0,114	16	..	
44 Letonia	0,814	0,726	35	0,216	36	0,006	2003
45 Argentina	0,811	0,653	43	0,380	71	0,011	2005
46 Seychelleak	0,806	..	..	..	..	..	
47 Kroazia	0,805	0,683	39	0,179	33	0,016	2003
GIZA GARAPEN HANDIA							
48 Bahrain	0,796	..	..	0,258	45	..	
49 Bahamak	0,794	..	..	0,316	53	..	
50 Bielorrusia	0,793	0,727	33	..	..	0,000	2005
51 Uruguai	0,792	0,662	42	0,367	69	0,006	2002/2003
52 Montenegro	0,791	0,733	31	..	..	0,006	2005/2006
52 Palau	0,791	..	..	..	..	..	
54 Kuwait	0,790	..	..	0,274	47	..	
55 Errusiar Federazioa	0,788	..	..	0,312	51	0,005	2003
56 Errumania	0,786	0,687	38	0,327	55	..	
57 Bulgaria	0,782	0,704	36	0,219	38	..	
57 Saudi Arabia	0,782	..	..	0,682	145	..	
59 Kuba	0,780	..	..	0,356	63	..	
59 Panama	0,780	0,588	57	0,503	108	..	
61 Mexiko	0,775	0,593	55	0,382	72	0,015	2006

GGIren sailkapena	Giza Garapenaren Indizea	Berdintasun-ezaren arabera Doitutako GGI		Generoaren alorreko Berdintasun-ezaren Indizea		Alderdi Anitzeko Pobreziaren Indizea	
	Balioa	Balioa	Sailkapena	Balioa	Sailkapena	Balioa	Urtea
62 Costa Rica	0,773	0,606	54	0,346	62	..	
63 Grenada	0,770	..	..	..	..	..	
64 Libia	0,769	..	..	0,216	36	..	
64 Malaysia	0,769	..	..	0,256	42	..	
64 Serbia	0,769	0,696	37	..	..	0,003	2005/2006
67 Antigua eta Barbuda	0,760	..	..	..	..	..	
67 Trinidad eta Tobago	0,760	0,644	49	0,311	50	0,020	2006
69 Kazakhstan	0,754	0,652	44	0,312	51	0,002	2006
70 Albania	0,749	0,645	48	0,251	41	0,005	2008/2009
71 Venezuelako Bolibartar Errepublika	0,748	0,549	66	0,466	93	..	
72 Dominika	0,745	..	..	..	..	..	
72 Georgia	0,745	0,631	51	0,438	81	0,003	2005
72 Libano	0,745	0,575	59	0,433	78	..	
72 Saint Kitts eta Nevis	0,745	..	..	..	..	..	
76 Irango Islamiar Errepublika	0,742	..	..	0,496	107	..	
77 Peru	0,741	0,561	62	0,387	73	0,066	2008
78 Mazedoniako Jugoslaviar Errepublika Ohia	0,740	0,631	51	0,162	30	0,008	2005
78 Ukraina	0,740	0,672	40	0,338	57	0,008	2007
80 Maurizio	0,737	0,639	50	0,377	70	..	
81 Bosnia-Herzegovina	0,735	0,650	45	..	..	0,003	2006
82 Azerbaijan	0,734	0,650	45	0,323	54	0,021	2006
83 Saint Vincent eta Grenadinak	0,733	..	..	..	..	..	
84 Oman	0,731	..	..	0,340	59	..	
85 Brasil	0,730	0,531	70	0,447	85	0,011	2006
85 Jamaika	0,730	0,591	56	0,458	87	..	
87 Armenia	0,729	0,649	47	0,340	59	0,001	2010
88 Santa Luzia	0,725	..	..	..	..	..	
89 Ekuador	0,724	0,537	69	0,442	83	0,009	2003
90 Turkia	0,722	0,560	63	0,366	68	0,028	2003
91 Kolonbia	0,719	0,519	74	0,459	88	0,022	2010
92 Sri Lanka	0,715	0,607	53	0,402	75	0,021	2003
93 Aljeria	0,713	..	..	0,391	74	..	
94 Tunisia	0,712	..	..	0,261	46	0,010	2003
GIZA GARAPEN ERTAINA							
95 Tonga	0,710	..	..	0,462	90	..	
96 Belize	0,702	..	..	0,435	79	0,024	2006
96 Dominikar Errepublika	0,702	0,510	80	0,508	109	0,018	2007
96 Fiji	0,702	..	..	..	..	..	
96 Samoa	0,702	..	..	..	..	..	
100 Jordania	0,700	0,568	60	0,482	99	0,008	2009
101 Txina	0,699	0,543	67	0,213	35	0,056	2002
102 Turkmenistan	0,698	..	..	..	..	..	
103 Thailandia	0,690	0,543	67	0,360	66	0,006	2005/2006
104 Maldivak	0,688	0,515	76	0,357	64	0,018	2009
105 Surinam	0,684	0,526	72	0,467	94	0,039	2006
106 Gabon	0,683	0,550	65	0,492	105	..	
107 El Salvador	0,680	0,499	83	0,441	82	..	
108 Boliviako Estatu Plurinazionala	0,675	0,444	85	0,474	97	0,089	2008
108 Mongolia	0,675	0,588	60	0,328	56	0,065	2005
110 Palestina	0,670	..	..	..	..	0,005	2006/2007
111 Paraguai	0,669	..	..	0,472	95	0,064	2002/2003
112 Egipto	0,662	0,503	82	0,590	126	0,024	2008
113 Moldaviako Errepublika	0,660	0,584	58	0,303	49	0,007	2005
114 Filipinak	0,654	0,524	73	0,418	77	0,064	2008
114 Uzbekistan	0,654	0,551	64	..	..	0,008	2006
116 Siriako Arabiar Errepublika	0,648	0,515	76	0,551	118	0,021	2006
117 Mikronesiako Estatu Federatuak	0,645	..	..	..	..	..	
118 Guyana	0,636	0,514	78	0,490	104	0,030	2009
119 Botswana	0,634	..	..	0,485	102	..	
120 Honduras	0,632	0,458	84	0,483	100	0,159	2005/2006
121 Indonesia	0,629	0,514	78	0,494	106	0,095	2007
121 Kiribati	0,629	..	..	..	..	..	
121 Hegoafrika	0,629	..	..	0,462	90	0,057	2008

	Giza Garapenaren Indizea	Berdintasun-ezaren arabera Doitutako GGI	Generoaren alorreko Berdintasun-ezaren Indizea	Alderdi Anitzeko Pobreziaren Indizea			
GGIren sailkapena	Balioa	Balioa	Sailkapena	Balioa	Sailkapena	Balioa	Urtea
124 Vanuatu	0,626	..	..	..	..	0,129	2007
125 Kirgizistan	0,622	0,516	75	0,357	64	0,019	2005/2006
125 Tajikistan	0,622	0,507	81	0,338	57	0,068	2005
127 Vietnam	0,617	0,531	70	0,299	48	0,017	2010/2011
128 Namibia	0,608	0,344	101	0,455	86	0,187	2006/2007
129 Nikaragua	0,599	0,434	86	0,461	89	0,128	2006/2007
130 Maroko	0,591	0,415	88	0,444	84	0,048	2007
131 Irak	0,590	..	..	0,557	120	0,059	2006
132 Cabo Verde	0,586	..	..	..	..	..	
133 Guatemala	0,581	0,389	92	0,539	114	0,127	2003
134 Ekialdeko Timor	0,576	0,386	93	..	..	0,360	2009/2010
135 Ghana	0,558	0,379	94	0,565	121	0,144	2008
136 Ekuatore Ginea	0,554	..	..	..	..	..	
136 India	0,554	0,392	91	0,610	132	0,283	2005/2006
138 Kanbodia	0,543	0,402	90	0,473	96	0,212	2010
138 Laosko Herri Errepublika Demokratikoa	0,543	0,409	89	0,483	100	0,267	2006
140 Bhutan	0,538	0,430	87	0,464	92	0,119	2010
141 Swazilandia	0,536	0,346	99	0,525	112	0,086	2010
GIZA GARAPEN APALA							
142 Kongo	0,534	0,368	96	0,610	132	0,208	2009
143 Salomon Uharteak	0,530	..	..	..	..	..	
144 Sao Tome eta Principe	0,525	0,358	97	..	..	0,154	2008/2009
145 Kenya	0,519	0,344	101	0,608	130	0,229	2008/2009
146 Bangladesh	0,515	0,374	95	0,518	111	0,292	2007
146 Pakistan	0,515	0,356	98	0,567	123	0,264	2006/2007
148 Angola	0,508	0,285	114	..	..	..	
149 Myanmar	0,498	..	..	0,437	80	..	
150 Kamerun	0,495	0,330	104	0,628	137	0,287	2004
151 Madagaskar	0,483	0,335	103	..	..	0,357	2008/2009
152 Tanzaniako Errepublika Batua	0,476	0,346	99	0,556	119	0,332	2010
153 Nigeria	0,471	0,276	119	..	..	0,310	2008
154 Senegal	0,470	0,315	105	0,540	115	0,439	2010/2011
155 Mauritania	0,467	0,306	107	0,643	139	0,352	2007
156 Papua Ginea Berria	0,466	..	..	0,617	134	..	
157 Nepal	0,463	0,304	109	0,485	102	0,217	2011
158 Lesotho	0,461	0,296	111	0,534	113	0,156	2009
159 Togo	0,459	0,305	108	0,566	122	0,284	2006
160 Yemen	0,458	0,310	106	0,747	148	0,283	2006
161 Haiti	0,456	0,273	120	0,592	127	0,299	2005/2006
161 Uganda	0,456	0,303	110	0,517	110	0,367	2011
163 Zambia	0,448	0,283	117	0,623	136	0,328	2007
164 Djibuti	0,445	0,285	114	..	..	0,139	2006
165 Gambia	0,439	..	..	0,594	128	0,324	2005/2006
166 Benin	0,436	0,280	118	0,618	135	0,412	2006
167 Ruanda	0,434	0,287	112	0,414	76	0,350	2010
168 Boli Kosta	0,432	0,265	122	0,632	138	0,353	2005
169 Komoreak	0,429	..	..	..	..	..	
170 Malawi	0,418	0,287	112	0,573	124	0,334	2010
171 Sudan	0,414	..	..	0,604	129	..	
172 Zimbabwe	0,397	0,284	116	0,544	116	0,172	2010/2011
173 Etiopia	0,396	0,269	121	..	..	0,564	2011
174 Liberia	0,388	0,251	123	0,658	143	0,485	2007
175 Afganistan	0,374	..	..	0,712	147	..	
176 Ginea Bissau	0,364	0,213	127	..	..	..	
177 Sierra Leona	0,359	0,210	128	0,643	139	0,439	2008
178 Burundi	0,355	..	..	0,476	98	0,530	2005
178 Ginea	0,355	0,217	126	..	..	0,506	2005
180 Afrika Erdiko Errepublika	0,352	0,209	129	0,654	142	..	
181 Eritrea	0,351	..	..	..	..	..	
182 Mali	0,344	..	..	0,649	141	0,558	2006
183 Burkina Faso	0,343	0,226	124	0,609	131	0,535	2010
184 Txad	0,340	0,203	130	..	..	0,344	2003
185 Mozambike	0,327	0,220	125	0,582	125	0,512	2009
186 Kongoko Errepublika Demokratikoa	0,304	0,183	132	0,681	144	0,392	2010
186 Niger	0,304	0,200	131	0,707	146	0,642	2006

	Giza Garapenaren Indizea	Berdintasun-ezaren arabera Doitutako GGI		Generoaren alorreko Berdintasun-ezaren Indizea		Alderdi Anitzeko Pobreziaren Indizea	
	Balioa	Balioa	Sailkapena	Balioa	Sailkapena	Balioa	Urtea
GGIren sailkapena							
BESTE HERRIALDE ETA LURRALDE BATZUK							
Koreako Herri Errepublikak Demokratikoa	..	..	..	..	..	..	
Marshall Uharteak	..	..	..	..	..	..	
Monako	..	..	..	..	..	..	
Nauru	..	..	..	..	..	..	
San Marino	..	..	..	..	..	..	
Somalia	..	..	..	..	..	0,514	2006
Hego Sudan	..	..	..	..	..	..	
Tuvalu	..	..	..	..	..	..	
Giza Garapenaren Indizeko taldeak							
Oso giza garapen handia	0,905	0,807	—	0,193	—	—	
Giza garapen handia	0,758	0,602	—	0,376	—	—	
Giza garapen ertaina	0,640	0,485	—	0,457	—	—	
Giza garapen apala	0,466	0,310	—	0,578	—	—	
Eskualdeak							
Estatu arabiarak	0,652	0,486	—	0,555	—	—	
Ekialdeko Asia eta Pazifikoa	0,683	0,537	—	0,333	—	—	
Europa eta Erdialdeko Asia	0,771	0,672	—	0,280	—	—	
Latinoamerika eta Karibe	0,741	0,550	—	0,419	—	—	
Hego Asia	0,558	0,395	—	0,568	—	—	
Saharaz hegoaldeko Afrika	0,475	0,309	—	0,577	—	—	
Gutxien garatutako herrialdeak	0,449	0,303	—	0,566	—	—	
Garapen-bidean dauden uharte-estatu txikiak	0,648	0,459	—	0,481	—	—	
Mundua	0,694	0,532	—	0,463	—	—	

OHARRA

Indizeek zenbait urtetako datuak erabiltzen dituzte. Zehaztasun gehiago izateko eta datuen ohar eta iturriak osorik ikusteko, jo Txosten osoko estatistika-eranskinera ([http://hdr.undp.org web-orrian](http://hdr.undp.org/web-orrian) eskuragarri). Herrialdeen sailkapenak GGIren kuartiletan oinarritzen dira: herrialde batek oso giza garapen handia du, bere GGI kuartil altuan badago; giza garapen handia, bere GGI 51–75 pertzentilean badago; giza garapen ertaina, bere GGI 26–50 pertzentilean badago; eta giza garapen apala, bere GGI kuartil baxuenean badago. Aurreko txostenetan, atalase absolutuak erabili ziren, erlatiboan ordez.

Giza garapenari buruzko txostenak. Nazio Batuetako Garapen Programak (UNDP) 1990etik giza garapenari buruz argitaratzen dituen txostenetan azkena da *Giza Garapenari buruzko Txostena 2013*. Txosten horiek garapenarekin lotutako kontu, joera eta politikari buruzko azterketa independenteak dira, eta oinarri enpirikoa dute.

*Giza Garapenari buruzko Txostena 2013*rekin lotutako baliabideak on line eskura daitezke hdr.undp.org helbidean. Webgune horretan, honako hauek daude: txostenen argitalpen osoak eta laburpenak, 20 hizkuntzatan baino gehiagotan; 2013ko Txostenerako agindutako giza garapenari buruzko ikerlanak; herrialdeko giza garapenaren adierazleen datu-baseak eta mapa interaktiboak; Txosteneko giza garapenaren indizeetarako erabilitako iturrien eta metodologiaren azalpen zehatzak; herrialdeen profilak; eta beste material batzuk. Aurrez giza garapenari buruz egin diren munduko, eskualdeko eta herrialdeko txostenak ere eskuragarri daude hdr.undp.org webgunean.

Giza garapenari buruzko eskualdeko txostenak. Azken bi hamarkadetan, Nazio Batuetako Garapen Programaren eskualdeko bulegoen laguntzarekin, giza garapenari buruzko eskualdeko txostenak egin dira garapen-bidean dauden eremu nagusi guztietan. Azterketa probokatzailen eta politika-gomendio argien bidez, funtsezko gaiak landu dituzte giza garapenari buruzko eskualdeko txosten horiek; adibidez, ahaldundutze politikoa estatu arabiarretan, elikagai-segurtasuna Afrikan, klima-aldaketa Asian, etnia-gutxiengoetikotratua Erdialdeko Europan, eta berdintasun-ezaren eta herritarren segurtasunaren erronkak Latinoamerikan eta Kariben.

Giza garapenari buruzko herrialdeko txostenak: Lehenengo giza garapenari buruzko herrialdeko txostena 1992. urtean argitaratu zen, eta, geroztik, Nazio Batuetako Garapen Programaren laguntzaz, tokiko argitalpen-taldeek herrialdeko 700 bat txosten egin dituzte 140 herrialdeetan. Dokumentu horiek giza garapenaren kontzeptua sartu dute herrialdeetako politika-eztabaidetan, tokian tokiko kontsulta-prozesuen eta ikerkuntzen bidez. Giza garapenari buruzko herrialdeko txostenek garapenarekin lotutako funtsezko zenbait kontu landu dituzte: klima-aldaketa, gazte-enplegua, generoaren edo etniaren araberrako berdintasun-ezak...

Giza garapenari buruzko txostenak. 1990–2013

1990	Giza garapenaren kontzeptua eta neurtzeko modua
1991	Giza garapenaren finantziarioa
1992	Giza garapenaren dimentsio globalak
1993	Jendearen parte-hartzea
1994	Giza segurtasunaren dimentsio berriak
1995	Generoa eta giza garapena
1996	Hazkunde ekonomikoa eta giza garapena
1997	Giza garapena pobrezia-rekin amaitzeko
1998	Giza garapenaren aldeko kontsumoa
1999	Giza aurpegia duen globalizazioa
2000	Giza eskubideak eta giza garapena
2001	Teknologia berriak giza garapenaren alde
2002	Demokrazia sendotzen mundu zatitu batean
2003	Milurtekoko Garapen Helburuak: giza pobrezia-rekin amaitzeko nazioen arteko ituna
2004	Kultur askatasuna egungo mundu anitzean
2005	Nazioarteko lankidetzaren bidegurutzean: laguntza, merkataritza eta segurtasuna desberdintasun handiko munduan
2006	Eskasia baino gehiago: boterea, pobrezia eta munduko ur-eskasia
2007/2008	Klima-aldaketa-ari aurre egiten: gizakion arteko elkartzasuna mundu zatitu honetan
2009	Oztopoak gaindituz: giza mugikortasuna eta garapena
2010	Nazioen benetako aberastasuna: giza garapeneko bideak
2011	Iraunkortasuna eta ekitatea: etorkizun hobearen guztiontzat
2013	Hegoaldearen goraldia: giza garapena, aniztasun handiko mundu batean



United Nations Development Programme
One United Nations Plaza
New York, NY 10017
www.undp.org

XXI. mendean, munduko dinamikak nabarmen aldatzen ari dira, garapen-bidean dauden herrialdeetako botere berrien goraldi azkarraren ondorioz. Txinak Japonia aurrerratu du, eta munduko bigarren ekonomiarik handiena bihurtu da; beraz, ehunka milioi pertsona pobreziatik irten dira prozesuan zehar. India bere etorkizuna berregituratzen ari da, ekintzaile berrien sormenari eta gizarte-politikak berritzeari esker. Brasil, berriz, bizi-maila hobetzen ari da, nazioarteko harremanak zabalduz eta pobreziaaren aurkako programak abian jarritz —munduko hainbat herrialdek kopiatu dituzte, gero, estrategia horiek—.

Baina “Hegoaldearen Goraldia” hori baino askoz fenomeno zabalagoa da. Indonesia, Mexiko, Hegoafrika, Thailandia, Turkia eta garapen-bidean dauden beste herrialde batzuk munduko eragile nagusi bihurtzen ari dira. *Giza Garapenari buruzko Txostena* 2013ren arabera, garapen-bidean dauden 40 herrialdek baino gehiagok espero baino emaitza hobeak lortu dituzte giza garapenean azken hamarkadetan, eta aurrerapena bereziki handia izan da azken 10 urteetan.

Herrialde horietako bakoitzak bere historia du, eta garapen-bide jakin bat aukeratu du. Dena den, ezaugarri eta erronka berdin batzuk dituzte guztiek. Gero eta lotura eta mendekotasun handiagoa dute elkarren artean. Eta herrialde horietako biztanleek gero eta gehiago eskatzen dute beren eskaerak entzun daitezen; izan ere, ideiak trukatzeko komunikabide berrien bidez, eta gobernuek eta nazioarteko erakundeek erantzukizun handiagoa izatea nahi dute.

Txostenak “Hegoaldearen Goraldi” etengabearen kausak eta ondorioak aztertzen ditu, eta zehazten du zer politikak susta dezaketen hurrengo hamarkadetan garapen handiagoa lortzea, errealitate berri horretan oinarrituta. Adierazten du beharrezkoa dela Hegoaldeak ordezkartza handiagoa izatea munduko gobernantza-sistemetan, eta azaltzen du zer finantziazio-iturri berri erabil daitezkeen oinarritzeko ondasun publikoetarako. Politikak aldatzeko ideia analitiko berrien eta proposamen argien bidez, giza garapenaren erronkei elkarrekin eta modu justu eta eraginkor batean aurre egiteko bidea erakusten die Txostenak eskualde guztiei.

“Txostenak munduko garapenaren egungo egoerari buruz dugun ideia eguneratzen du, eta erakusten du zenbat ikas dezakegun Hegoaldeko hainbat herrialderen garapen azkarraren esperientzietatik”.

—Helen Clark, UNDPko administraria; Hitzaurrea

“Giza garapenaren ikuspegia aurrerapen garrantzitsua da, zaila bada ere, pertsonen bizitzeko arrakastak eta gabeziak ulertzeko, bai eta hausnarketaren eta elkarriketaren garrantziaz jabetzeko ere. Munduan zuzentasuna eta justizia lortzen lagunduko du horrek”.

—Amartya Sen, Nobel sariduna; 1. kapitulua

“Inork ez dauka ideia onen monopoliorik; horregatik, New Yorkek beste hiri eta herrialde batzuen jardunbide egokienetatik ikasten jarraituko du”.

—Michael Bloomberg, New York hiriko alkatea; 3. kapitulua

“Garapen-bidean arrakasta izaten ari diren herrialdeek hartutako era askotako bideak ongi aztertzea lagungarria da herrialde eta eskualde guztiek politika-aukera zabalagoa izateko”. —Khalid Malik, Txostenaren egile nagusia; Hitzaurrea